



OROIMENAREN ALDARRIA

GUILLERMO AIZPURU, ESPAINIAKO GERRAKO TESTIGANTZA BIZIA

GIZARTEA ▶ Caballero, 33 urtean udaletxea garbitzen

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik



EUSKAL OKELA



**"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"**

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Antetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

HARZUBIA
MATXIN
URKAZUA
bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Harategia Odriozola
Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

PATXO
EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98

J.B. San Sebastián
HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA
KALITATEZKO HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBA
TFNOA.: 943 811671

Larrosa



Larrosa oparitu zidaten. Gustatu zitzaidan. Nire lantokian guztiak dira emakumeak, salbuespenak salbuespen. Eskola da. Eta emakume langilearen egunean maistrei larrosa oparitzeko ohitura hartu ei dute maistra arduradunek. Eta gizonezko apur batzuk ezin diskriminatuta utzi, eta beraiei ere larrosa eskaintzea erabaki zuten.

Niri ere eman zidaten. Pozik hartu nuen. Aspetebe iraun zuen mahaiaren gainean zimeldu zen arte. Nire alde femeninoa erreibindikatze-

ko erabili nuen. Badira baloreak emeagoak direnak. Eta denok dugu horietatik zerbait. Batzuek gehiago, besteek gutxiago.

Ez da kasualitatea, kausalitatea baino, emakumeak izatea Ahotsak bezalako mugimendua sortu dutenak. Lehenetsuna adostasunean ipintzen dutenak, bidea nondik aurkituko saiatzen direnak...

Jarrera diferenteak dira, bai. Gizonezkoek egoskorkeria dute lehenetsun, beraien arrazoa, eta besterik ez. Agintean izan diren emakumeek ere gizonezkoen balore horiek erabili izan dituzte nagusiki, agintea eta jabegoa lehenetsunez onartuz. Aita diziplinaren eredu. Ama, aldiz, hor dago beti, gertu, lagungarri...

Nik nire alde femeninoak azpimarratu nahi ditut, gehiago baloratu, ageriago egin, sarriago erabili... Aurten ere oparitzeko ahal didate larrosa! Nire alde femeninoa defendatzen jarraitzeko balioko lidake.

Zoritxarrez, nire 'malaletxea' ez da hain femeninoa...

uztarrria▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.
943 15 03 58

Posta elektronikoa.
uztarrria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 82.a (2007ko martxoa)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarrria.com

Diseinua. **EREGI**
EREGIA EUSKARAREN KOGNATIKO

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarrria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Lizarra Grafikak

Azaleko argazkia. Maider Zendoia

Oharra. Uztarririk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



[U-iritzia]

08 Inkesta. Martxoan izango dira tenporak. Uztarririk herritarrek kasurik egiten al dieten jakin nahi izan du.

11 Postontzia. Kepa Urbieta eta Igor Aranbarrik txanda hartu dute. Eskutitz bidez komunikatuko dira biak aldizkarian.

[U-mamia]

12 Langilea. Concepcion Caballero 33 urtean egon da udaletxean garbitzaile; aurrez beste 11 urtean aritzen zen etxetik kanpo lanean.

14 Klik. Azoka egunean postuak jartzea, ematen duena baino zailagoa da.

24 Zinegileak. Natatxa Films taldekoek proiektu berria dute eskuartean.



[U-jakiteko]

26 Datuak herriaz. Esaterako, Azpeitiak hazkunde begetatibo positiboa du, Eustatek jakinarazi berri duenez.

[U-euskara]

36 Eleka. Teknologia eta euskara uztartzen dituen enpresan dihardu lanean Ainhoa Salegi azpeitiarrak. Euskarakiko konpromisoa du bidelagun.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶

Inmuneak



Koldo Aldalur

Martin Scorsesearen *Infiltrados* filmean dotore adierazten dio Jack Nicholonek, italiar jatorriko Massachusetts-eko mafiako buruak, hiria kontrolpean mantendu nahian bere aurkaria den irlandarri: "Zuek [irlandarrak] zarete mundu osoan psikoanalisiari inmuneak zareten bakarrak".

Garbi dago Jack Nicholonek ez duela, oraindik, azpeitiarron berririk izan.

Zertarako behar ditugu psikologoak eta psikoanalistak geure defentsa sistema –aitzakien zerrenda, alegia– indarrean eta indartsu dugunean? Ez dago gaituzteko gaituen arazorik. Arazoa, ustez txikia bada, ez du merezi gure denbora preziatua horretan galtzerik... Gure seme-alabek gero eta okerrago hitz egiten dutela euskaraz? Eta zertarako dira ba andereño eta irakasleak? Hori ere guk konpondu beharrekoa al da?

▶ **KONPONDU BEHARREKO ARAZOAK.** Arazoa handia bada, urrunegi gelditzen dira irtenbideak: belaunaldi bakar batean ikusten ari garela eguraldiaren aldaketa bortitz bezain logikaz kanpokoak? Ozono geruzan Realaren defentsan baino zulo handiagoa sortu dela? Arazo politikoaren irtenbidea gero eta urrutiago dagoela? Gure arteko inkomunikazio politikoa gero eta handiagoa dela? Mehatxu eta mendekuz pozoindutako jarrerak gero eta errazago barneratzen ditugula? Eta zer, gure kotxean egindako kilometro apurrek ez dute, bada, kutsadura ikaragarri sortuko, ezta? Horiek enpresa handiek sortzen duten kutsaduraren ondorio dira. Gainera, jakin ezazu klima aldaketa-rena benetakoa ote den edo ekologista-alarmista horien kontu hutsa... Nik ez dut dagoeneko politikarrietan sinisten. Zer mehatxu eta zer mendeku? Edo, esate baterako, galanta da beti guri errua botatzeko ohitura hori!

Arazoak, gertukoa izanik, zuzenean ukitzen gai-

tuenean ere, badugu nondik ihes egin psikologoaren laguntzarik gabe: gazte jendeak –eta ez hain gazteek– etxebizitzarik lortzerik ez duela merkatua erabat logikaz kanpo dagoelako espekulazio eta azpijokoen ondorioz? Niri bost, nik hauteskundee-tan botoa eman nien, bai, eta nahi duten bezala, baina konpon dezatela arazoa, horretarako daude eta!

▶ **EZER EGIN GABE.** Beste arazo batzuek ukitu ere ez gaituzte egiten. Herria drogaz josita dagoela? Emakumeen kontrako indarkeriaren ubeldurak, begiratu gero, edozein begiondotan azaltzen direla? Kanpotarrak besterik gabe baztertzeko joera dugula? Gu horrela bizi ahal izateko, beraien azalak eta hezurak lanean txikitu zituzten zaharrak, erabat baztertzeko ditugula? Bale, baina lehen ere horrela zen eta gerora ere horrela izango da. Guk ez daukagu zorientasunaren giltza eta, guk nahi ala ez, munduak bere martxan segituko du.

Eta horrela ibili ohi gara bakoitzari bere buruak sortzen dizkion galdera gehienetan. Beti arazoari alde egiteko erraztasun hori. Eta aitzakien zerrendak erabat jotzen duenean, beti daukagu errealitate-tik babesteko gaituen laguna: zortea.

Kontrolatu ezin dituzten drogen zurrumbiloi sartu direla gazteak? Itota, erabat itota daudela etxea ordaindu ezinik? Mundua barrutik eta gaintik txikitzen ari garela? Auzokoak andrea jo duela? Zaharrek bizitzeko gogoa galdu dutela milaka pilulek ezin dutelako senide baten irria ordezkatu? Eliz atarian bi beltz daudela hotzak madarikatzen? "Ba al leizke etxera jun" entzun diozula etxeko txikiari? Zorte txarra eta kito!

▶ **PSIKOLOGOEN BEHARRA.** Esandakoa: psikologoak eta psikoanalistak, zertarako? Azpeitiarrak guztiok, beste askok bezala, hamalaurerik bat urterako aitzakien arlo hauetan lizentziatura eta doktoradutza eginak ditugu. Sagardoa kupeletan eta larrebehia kalean dabiltean bitartean gurekin jai dute. Jack Nicholonek arrazoi zuen: irlandarrak psikoanalisiari inmuneak dira. Azpeitiarroi Nicholonek dioena ere ez zaigu axola.

HILEKO ESALDIA ▶

Egia bada, aurten oporretan Irlandara.

ana mari egana jautzi denda *
agire ofaridenda *
azkne jautzi denda *
gekma kiukilidenda *
itunalde itunqintza *
funudarena sinetakoak
gotain lurrindegia *
jone eta maikan estetika zentua *
jostaldi kirolak *
lidia jautzi denda *
martina isasti jautzi denda *
natna belardenda *
tonalday aholkularitza *
mestilla jautziak *

Alde Zaharreko Merkataria Urte Osan Zuekin

Martxoak 8



Jon Larrañaga

Gaztea, irekia, aurrerakoia eta ezkerrekoa (beno, ondo bizitza gustuko duen ezkerreko egoista samarra) naizela esango nuke. Hori uste nuen behintzat, baina badakizue, usteak erdia ustel!

Aste honetan lanean gertatu zaidana kontatuko dizuet. Lagun batzuk gonbidatu genituen lanera. Taxian etorri ziren eta eguna igaro ondoren harrerara lagundu nien. Betiko atezaina eta adineko emakume bat zeuden (45-50 urte bitarteko emakumea). "Bere emaztea", pentsatu nuen.

–"Taxia zain dugu!", esan zidaten gonbidatuek.

Nik ingurura begiratu eta inor gehiago ez ikustean, zera erantzun nien:

–"Kanpoan begiratu dut, agian auto barruan egongo da-eta. Badakizu taxi-gidari hauekin..."

Eta gonbidatua erantzutera zihoala, adineko emakumeak hurbildu eta:

–"Ni naiz taxi-gidaria"...

▶ **GUZTIZ HARRITUTA.** Nire moderno, aurrerakoi eta 'guai' aurpegia zurbil geratu zen. Azpeitian bertan bada neska taxi-gidaria eta horrek ez nau harritzen, baina emakume haren itxura eta adina ikusita ez zitzaidan burutik pasatu ere egin bera taxi-gidaria izan zitekeenik. Inork ez zidan ezer esan, ezta ezer leporatu ere. Baina beharrik ere ez zen egon. Nik jakin gabe, barru-barruan nuen sen matxistak oihu egin zuen. Gonbidatuak agurtu eta lotsatuta nire lanera itzuli nintzen.

–*Ahuntza, astoa ta emakumea ez ditu inork teman hautsiko.*

–*Apaindurik, emakume itsusirik ez.*

–*Astoa eta emakumea ez zaizkio inori uzten.*

–*Emakume bakartia, esamesen belakia.*

–*Emakumea alargundu ta harrotu.*

▶ **EMAKUMEAREN EGOERA.** Nire lana dela-eta azken aldian aspaldiko esaera zaharrak-eta ikusten nabil. Eta, besteak beste, horrelakoak barra-barra topatu ditut. Eskerrak Euskal Herrian betidanik matriarkatua izan den nagusi, ezta?

Gauzak hobetu dira, egia da. Azpeitiko danbo-

rradan, esate baterako, eta oker ez banago behintzat, bi konpainia baino ez dira izan emakumezkorik gabe atera direnak. Emakumeak ateratzen diren konpainia bateko mutil bati entzun nion: "Guk emakumeei ateratzen uzten diegu". Utzi?!

Abanderada eta kantineren kontua ez dugu aipatu ere egingo. Uztarrria.com-eko blogari batek aipatu zuen gizonak aterako ziren kontua baina... Badirudi *Matxote*-k zabaldutako bideari *Dodak* baino ez diola eutsi.

Gaur egun zabaltzen ari diren elkarte gastronomiko gehientsuenak ere mistoak dira. Hala ere, badakit gure inguruan badela orainsu estatutuak berri eta berriro emakumeak kanpoan uztea erabaki duen elkarterik. Eta zer pentsatzen dute gizon edo mutil horien bikote edo emazteek? Zenbat gustatzen zaigun besteen inguruko erabakiak hartzea, batik bat eurei galdetu gabe.

Gauzak aldatu dira bai...

▶ **PERTSONAIA ESAN GURATSUAK.** Azpeitian ikaragarri saltzen eta irakurtzen den egunkari bateko igandeko gehigarriak zer pentsatua eman dit. Espainiako azken hamar urteetako hamar pertsonaiarik esanguratsuenen zerrenda egin dute (jendeak bozkatua omen) eta denak gizonezkoak!

Era berean, hamar pertsonaia horiek eurek miresten dituzten beste hamar erakutsi dizkigute. Emakumezko margolari bakarria agertzen da; beste margolari baten emaztea. Agertzen diren beste bi edo hiru emakumeak, pertsonaia horien amak dira. Miresmena ama delako! Omenaldi pertsonal gisa oso hunkigarria eta polita da, baina zer pentsatua ematen du, ezta? Ez al dago bere lanarengatik miresmena merezi duen emakumerik?

"Ezberdintasunean dago gure berdintasuna eta hori benetan sinistu eta barneratzen dugunean aldatuko dira gauzak." Hori dio nire lagun on batek. Baina hura oso baikorra da...

▶ **BERDINTASUN EGUNA.** Politza litzateke martxoaren 8a Emakumearen Eguna izatetik berdintasunaren aldeko festa eta eguna izatera pasatuko balitz, ezta? Hori iritsi artean, naizena izaten hainbeste lagundu didaten lagun neska-emakume denei animo eta muxu bana bidali nahi diet. Handiena, amari. Badakit omenaldi pertsonala dela baina ni aguantatzeak hori eta gehiago merezi du.

HILEKO ESAERA ▶

Ezberdin izan, bizi eta senti daitekeelako...

Eman zure negozioaren berri

Azpeitiko Gidan!


azpeitiko



HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



EREGI EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA Goiko kalea 5, 3A • 20730 Azpeitia, Gipuzkoa • Tel: 943 080688 • e-posta: eregi@eregi.net



15 

korrika

KARRANTZA-IRUÑEA 2007 MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

badator!

aek heldu

ELKARLANARI EUSKARARI HERRIARI HITZARI LEKUKOARI

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Hau ▶



Aitor Aranguren

Aio!

Ia lau urte txoko honetan... Ez naiz sekula izan geldirik egotekoa eta gauza berriei heltzea gogoko dut. Horrexegatik hartu nuen ilusioz izkina honetatik nire iritzia aireartzeko erronka. Gizartean parte hartzeko beste modu bat bezala ikusi nuen, gainera.

Zeinek ez ditu momentu pozgarriak izan, tristeziak jota egon, amorratuz itsutu eta arduratuta galderaz beteta egon. Ba horixe besterik ez dut egin txoko honetatik, sentsazio horiei heldu eta paperean itsatsi. Askok kostatuta, ez baita nire izaera ez luze hitz egitea, ez idaztea.

Tarte honetan plazaratutakoak guztiz iritzi pertsonalak izan dira eta idatzitako guztiari erreposoa emanez ikusi dut, bereziki, gure seme-alabei utzi behar diegun munduak arduratzen nauela eta hortik joan dira testu gehienak: etxeak, errepideak, ingurune naturala, paisaia, zarata, kutsadura. Gure planeta maite dut.

Amorruzko testurik ere egon da. Izan ere, ez ditut ulertzen alderdien arteko betiereko gorrotoak, eta oraindik gutxiago alderdi barrukoak. Ezin dut jasan ETaren diktadura, eta kaleko indarkeria ulertezina egiten zait. Eta kultur ekintzak, euskara barne, alderdikierietarako erabiltzea... *no comment*. Malenkoniak beteriko momentu tristeak ere izan dute euren lekua. Bestalde, mingainari hozkada hainbat alditan egindakoa ere banaiz.

Azken lerro hauekin nire eskerrak luzatu nahi dizkiot Uztarriari nire iritziak, tristurak, haserreak eta tontakeriak plazaratzeko tartetxo bat eskaini didalako urte hauetan. Eskerrik asko, era berean, nire akatsez beteriko testu traketsetan egin dituzuen zuzenketengatik. Bejondeizuela! Eutsi euskalgintzari!

Aio!

Galdetuz ▶

Tenporen iragarpenari kasurik egiten al diozu?

JOSEFA GURRUTXAGA ▶
errezildarra



“Fedea badaukat tenporatan. Izan ere, tenporek iragarritakoa neguan hortxe nonbait ibili da. Haizeak jotzen duen lekutik etortzen da joera”.

JUANITA GURRUTXAGA ▶
errezildarra



“Pello Zabalari eta Andoni Aizpururi entzuten diet. Baina, egia esan, guk gehiago begiratzen diogu ilbeherari eta ilgorari; baserritarren kontua da beti eguraldiari begira egotea”.

ARANTXA ARRIZABALAGA ▶
loiolararra



“Lehengok kontua dela esaten bada ere, tenporen kontra ez dut ezer. Nik meteorologiari gehiago begiratzen diot; gaurtik biharko iragarpenari, alegia”.

ARROSA BORDA ▶
azpeitiarra



“Zientzia aplikatuta gure herritarrei onura ekar diezaiokeen jakinduria da tenpora. Izan ere, naturara maitasunez gerturatzeak ekarriko digu natura ulertzea”.

Apunteak ▶

GORA.

Entrenatzailea aldatu zuenetik oso ondo dabil Iraurgi SB EBA Ligan, eta igoera jokatzeko kanporaketan izateko aukerak dauzka. Jorge Elordui da entrenatzailea orain.

BEHERA.

Azkeneko asteetan bi aldiz aparra agertu da Arlizeta errekan –Aratz-erreak eta Urrestilla artean– eta Errezildik datorren errekan. Ibaietan-eta ere azaldu izan dira zikinkeriak behin baino gehiagotan. Eta azaltzen segituko dutela ematen du...



Arlizeta erreka. Aparra azaldu zen otsailean. ANE ARANBURU

ZALANTZA.

Hasi dira bidegorriak egiten. Orain ikusi egin behar herritarrek erabiliko dituzten. Eskatzea izaten da errazena.

Ba al dakizu... ▶

...aurten presoan aldeko Azpeitiko Elkartasun Egunean (maiatzaren 19an), Azkoitian Udalak eta tabernariak egun berean Fermin Muguruzaren kontzertua antolatu dutela?

Zer dio? ▶ Ekaitz Agirre (Azpeitiko Gazte Asanbladaren izenean)

Etxebizitzaren arazo larriaz

Azpeitiko Gazte Asanbladatik kritika zorrotza egi-
ten diogu Udalak daraman etxebizitza politikari. Gaurko egoerara iristearen arrazoia, interes ekonomiko-pertsonalak, aginteriengan herri interes sozio-ekonomiko orokorren ganetik jarri izana da. Oinarrizko eskubide unibertsala luxu bilakatu dute Azpeitiko agintariak eta konstruktoreak, ahaztu gabe egoeraz aprobetxatzen diren inbiliaria eta bankuak.

Udalak daraman politikak oinarririk akats larria du: ez zaigu herritarroi galdetzen zein diren gure beharrik. Beraz, nola emango diete irtenbidea arazoei?

Izarrako babes ofizialeko etxeak hautes kanpaina dira. Politika iraunkorra landu behar da arazo sakonari buelta emateko; partxeok ez dute hori lortuko.

Azpeitian 1.090etik gora etxe huts daude. Zergatik ez erabilpena eman? Zergatik ez zaharkiturik daudenak birziklatu? Interes ekonomikoak daudelako!

Demagun Izarrako proiektua borondate onekoa dela (nahiz eta ez dugun sinesten). Babes ofizialeko etxeak, behar handiena dutenentzat behar lukete. Zergatik 600 eurotik gorako gutxieneko diru sarre-
ra? Hilean ia 2.600 euro irabazten duena nola jar daiteke behar handiena dutenen artean? Zergatik ez eman aukera behar handiena dutenei, zozketa behar-
rean? Zozketak parean jartzen ditu bi haur dituen emakume langilea eta ia 2.400 euro kobratzen ari den bikote bat. Hori al da politika eraginkorra?

Beste behin ere hauteskundeetarako iruzurra! Ez gaituzte engainatuko! Gazteak gara, ez babuak! Borrokan jarraituko dugu gure eskubidearen defentsan, Gazte Manifestua oinarritzat jasoz. Agintariok okupazioa alternatiba bakarria izatera bideratu dute eta, hitz egin nahi ez duten bitartean, gertaera gut-
tien erantzule bakarrak izango dira.

50 urte betetzean

Duela urte batzuk, familiako topaketa bat zela-eta, nire izebetako batek zioen pertsona baten bizitzan 45 urtetik 50ra bitartekoa dela sasoirik onena. Buruz zioen, bete-betean, heldutasunerira iritsita, bizitzari patxadaz aurre egiteko gai eta gorputzez indarrean oraindik.

Iritzi hori gogoan nuelako-edo, inpresio berezi bat sentitu nuen duela urtebete pasa lagun-min batek 50 urte bete zituela-eta. "Bizitza aurrera doakigun seinale", gogoratu nuen behin baino gehiagotan.


Duela gutxi, ikasturte hasierako bilera batean kaxa batzuk kargatu behar zirela-eta, inguruko batek pisuarekin kontuz ibiltzeko aholkuari horrela erantzun zion lagun berak: "Hala da, 50 urte bete ondoren, garai batean egindako gehiegikeriak antzematen hasi nauk".

Egia da. Bizitza azkar doakigu; agian, nahi baino azkarrago. Bizitzaren bigarren zatia bizitzen ari gara dagoeneko. Sasoi onean gaude, baina indarrez garai batean baino gutxiago izango gara. Antzematen diogu, bai, lan egiteko dugun gaitasunean, bizitasunean eta, zer esanik ez, osasun arloan.

Bestalde, urteen poderioz, gure aukera eta gure mugak hobeto eza-
gutzen ditugu; bizitza bera ere, seguru aski, sakonago ezagutuko dugu, eta errealismo handiagoz egingo diogu aurre. Bizitzaren sasoi honetan bizi izan dugunari buruzko gogoeta egin eta, agian, gure bizitzaren sakonean egin dugun eta egiteko utzi dugun horren oinarrian, halako hari nagusi bat antzemango dugu; gure bizitza bideratu duen ardatz nagusia.

"50 urte betetzea ez da bizitzak ihes egiten digula sentitzea, bizitzako bidean aurrera egiteko garaia baizik", idatzi zuen duela urte asko gipuzkoar apaiz batek. Hori bai, bizitza bera eskertuz.


◀ Eta beste



Kepa Susperregi



Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



**TA HORREK NOLA HARTZEU
BA HOLAKO ABIADURIE??**

**ALDAPABERA
BUELTAN BUELTRAN O...**

**HAU DEK KAKA
MOKORDUE!!**

**AZKENIN IN
DEBE, ABIADURA
HAUNDIKO KAKA!!**

ZE ONDO,EZTA?



Larri antzean



Kepa Urbieta

Igor, maitea! Harrituta, ezta? Bai? Egia esan, neroni ere hire antzera nagok. Aspaldi duk hire berririk ez dudala, eta gutun baten bidez kasu egitea otu zaidak. Barka ausardia. Zenbat denbora pasatu duk azkenekoz elkarrekin egon ginenetik? Akordatzen zenbat Cola Cao hartzen genituen?

Garai ederrak hituen, bai. Edozer txikikeriagatik larritzen gintuan, eta elkarrengana korrika joaten kontatu arteko lasaitasunik topatu ezinda.

Gogoratzen nauk lehenengo aldiz maitemindu nintzela uste nuen egun hartan nola joan nintzaian etxera ate joka. Azkar jaisteko, gertakizun ikaragarria

gertatu zitzaidala-eta; tripa barranean zerbait sentitzen nuela. Ene!

Gaur izan balitz bezala gogoratzen diat. Eta azkenean zer eta ultzera madarikatu bat zuan sentitu nuen gauza bakarra. Berehala joan zitzaidan maitasunaren lilura. Aurreneko aldiz hura ere. Eta beste mila pasadizo kontatu ezin direnak...

Igor. Oraingoan bai. Oraingoan zerbait handia gertatu behar zaidak. Mesedez, ez esan inori, ez erakutsi inori gutun hau. Igor, ez nagok ondo eta ez zakiat zer egin. Jan eta ñam ari nauk. Ezin geldirik egon. Martxoa datorrela, Igor. Udaberriko haize zoroak ere ez naik libratuko, besteetan egin

ohi duen moduan. Neguaren hotzarekin batera joango duk nire zati handi bat. Beste bat, eta beste bat, banaka. Ez! Errenkadan 26 egin arte. Nora begira egon nauk orain artean? Zaintzen hasi behar diat. Berandu duk egin dudanez damu izateko.

Mundura ekarri nindutela 26 urte beteko dituk. Zer? Ez al da larria? Egia duk, baliteke ez izatea baina, tira, denek egiten dutena duk. Gizartean ditiagun arazoak saihesteko txikikeria batengatik larritu. Bakoitzak bere zilborrari, amen! Eta nik zergatik ez?

Post Scritum: zer moduz? Besarkada bat bitartean.

Adreiluak kentzen



Igor Aranbarri

Aupa, gizon! Oraindik lehenengo lepotik daukak burua. Edozein txikikeria tarteko susto aurpegiarekin arnasestuka. Poz eman zidak, hala ere, nirera ate joka hurbildu hazela ikusteak. Izan ere, urteek adreilu hotz mordoak ziruditek, gela bakartietan pixkanaka preso hartzen gaituztenak. Inork jakin bazekik horretaz, baina guk 26 urterekin ez zaukaagu barkaziorik.

Hire gutuna irakurtzean baxilergo garaiak etorri zaizkidak gogora. Orduan egun bakoitzak liburu bat idazteko lain ematen zian. Orain, berriz, hila-beteak zeramatzaat hitzik izkiriari gabe. Zergatia ez zaukaat garbi. Zahartu ote? Ezin horre-

lakorik esan, zenbaitzuek bas-toikada onak emango zizkidatek, bestela. Heldutasuna? Bai, hori izango duk. Jada ez diagu larunbatetan herrian jende berririk ezagutzen, lana behar bihurtu diagu, eta gehiago hitz egiten diagu pasatu diren gauzez gertatu behar dutenez baina. Bai, helduak izango gaituk jada. Konturatzerako nerabearoa oroitzapen bihurtu duk.

Baina, barkatuko zidatek gaztetxoek, ez nizkikek berriz 13-14 urte hartuko. Hik bai? Lehen begiratura, arrazoa duk, garai horietan zirrarez betetzen genitian geure istorioak: neska kontuak, lehen parrandak, eskolako gorabeherak... orain txi-

kikeriak ziruditek baina orduan geure bizia jokoan zela ematen zian.

Hala ere, orain duk etorkizunaren bidegurutzeta, aldi hau duk erabakien garaia, gure historia pertsonala gauzatzen den unea, eta ez gaituk Cola Cao bat hartzeko gai. Denborak nonbait benetan norbaiti zer moduz dagoen galdetu eta egiazko erantzun bat emateko koldarregiak bihurtu gaituk. Eta oraindik 26 'adreilu' ditiagu.

Horregatik, gustura jaso diat hire berri. Akaso, urteak ezingo ditiagu kendu baina hormak ahultzen joan gintezkek esku-titz bidez. Neuk idatziko diat hurrena.

Besarkada bat bitartean.



etxetik kanpoko ere LANGILEA

Concepcion Caballerok 33 urte egin ditu udaletxean garbitzaile, 44 etxetik kanpoko lanetan, eta orain hartu du erretiroa

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkiak: Maider Zendoia

Orain dela 44 urte Azpeitian ez ziren emakume asko ariko lanean euren etxetik kanpo. Ez zegoen gaurko kulturarik. Concepcion Caballero lanean zen. Emakumeen artean, Caballero salbuespenetakoa orduan. Orain hartu du erretiroa. 44 urte egin ditu lanean; horri gehitu etxekoa.

Badajoztik (Espainia) etorri zen mutil-lagunarekin eta dirua behar zuten. "Valle de la Serenakoak gara biok eta 1963an Azpeitira etorri ginen, neuk 20 urte nituela. Ordurako ahizpa hemen neukan eta haren etxera etorri nintzen. Orain neure senarra denak orduan izeba bat zeukan Azpeitian eta hura, izebaren etxera. Urtebetera ezkondu ginen -Valle de la Serenara joan ginen horretaraxe-, Azpeitian etxean sartu ginen eta, jakina, dirua behar nuen", dio Caballerok. "Hemen lana bazegoen, baina jendeak lan mota batzuk ez zituen egin nahi: udaltzain..."

Azkeneko 33 urtean udaletxean jardun du, garbitzaile. "Aurretik pare bat urtean Silvestre Otamendi zenaren etxean jardun nuen lan berean, hura alkatea



Concepcion Caballero lankideekin, laneko azken egunean, udaletxean.

“Azpeitira etorri nintzenez, hemen lana bazegoen baina jendeak ez zituen lan mota batzuk egin nahi”

“Udal geletako-eta ehun giltza izateraino heldu naiz eta denak ezagutzen nituen”

CONCEPCION CABALLERO ► udaletxeko garbitzaile ohia

zela, eta hark esan zidan bazegoela garbitzaileen beharrik udaletxean. Halaxe sartu nintzen”.

1974a zen. “Ez dago konparatu ere egiterik orduan udaletxean zegoen antolakuntza eta gaurkoa. Garai hartan solairu bakarrean zegoen dena; orain, berriz... Orduan zenbat ginen ba lanean? Gutxi. Orain... Garbitze lanetan, esaterako, lau ginen, eta orain, neuk utzi arte, hamar”. Izan ere, asko ugaritu zaie lana: lehen udaletxea eta eskolaren bat garbitzen zuten eta gaur, udaletxea ez ezik, beste 25 bat eraikin: eskolak, Izarraitz frontoia -lehen ez zen Udalarena-, kiroldegia eta halakoak, Urrestillako lokal batzuk tarteko.

► **SOLDATA: 4.000 PEZETA.** Concepcion Caballeroren udaletxeko hileko lehen soldata: lau mila pezeta hilean. Egunean lau ordu lan eginez hasi zen.

Hamar bat urtean jardun zuen egun erdiz lanean udaletxean. Harrezkero, egun osoz, azkenean garbitzaileen arduradun bukatzeraino. “Beti giro ona izan dut han. Familia bat bezalakoa izan gara. Nire senarren eta hiru seme-alaben ondoren, udaletxekoa izan da



nire familia”. Kontratu finkoa zeukan baina ez zuen funtzionari izateko sinatu, lehenago hartu nahi zuelako erretiroa. Hartu du.

Askok dira 33 urte. “Baina ez pentsa aparteko gauzarik gertatu zaidanik udaletxean. Nik neurea egiten nuen eta kito. Politikariaren gelara sartzen nintzenez, euren artean laneko aipamenak-eta egiten aritzen zirenean, egia esan, ez nuen entzuten zer esaten zuten. Profesionala izan naiz. Jakin-mina denok izaten dugu, ea zer dioten, zer jakiten dudan, baina ni lanean ari nintzela neure munduan egoten nintzen. Eta politikari denak-eta berdin tratatu izan ditut”.

Mahai gaineko paperei ere ez zien erreparatzen. “Pentsa, lehen



ez zegoen ordenagailurik eta halakorik, eta papera izaten zen... Artxiborik ere ez zegoen hasiera haietan. Dena den, nik dakidala, ez nuen deskuiduan dokumenturik zakarrontzira botatzen; inor ez zitzaidan kexatu, behintzat”.

Udaletxean egindako 33 urteetan, 18 urtean Jose Mari Bastida alkate izan zen. “Goizeko zazpi eta erdietan hasten nintzen lanean eta, lehendabizi, Alkatetzako gela garbitzen nuen. Izan ere, politikarien gelen artean bertan mugitzen da jende gehien, normala den bezala, bilera gehien hor izaten direlako. Beraz, logikoa da tratua izatea horrenbeste urtean alkate izan denarekin. Ondo moldatu nintzen”.

Behin fabore ederra egin zion Bastidari. “Uste dut bera alkate jarri eta segituan gertatu zela [1985eko urtarrilaren 10ean izendatu zuten, Imanol Eliasen partez]. Udaletxe barruko giltzak bazituen hark baina artean atariko giltza ez, eta behin barruan geratu zen, bakarrik, irten ezinda. Lanean geratuko zen barruan, eta baten batek udaletxea itxi, inor ez zegoelakoan. Arratsaldean zera eta udaletxera sartu nintzen garbitze lanetara, han zegoen Bastida eskailera batzuetan eserita. Nonbait, telefonoz deitzeko aukerarik ere ez zuen izan, eta orduan artean mugikorrik ez zegoenez...”.

Concepcion Caballero ez zuen giltza faltarik izan, ez, lane-

an. Ehun giltza izatera heldu zen: Udalaren eraikin denetakoak, udaletxeko geletakoak... Giltza bakoitzari seinalea jartzen zion, zehatz-mehatz jarri gabe bakoitza nongoa zen, jendeak ez jakiteko, galduz gero. “Nahiago nuen txanponen kartera galtzea, giltzak baino”. Hain ondo ezagutzen zituen giltzak, “neurriagatik, formatik...” ezagutzen zituela. “Elek-


trikaria etortzen zela halako giltza eske? ‘Hartu hau’, segituan. Iturgina etortzen zela? ‘Hartu hau’. Betharrametako behar zutela? ‘Hartu hau’”. Kopiarik ez zeukan batere. Ez zuen galdu, ordea, giltza bakar bat ere. Udaletxe kanpoko eraikinetakoak giltzapean gordetzen zituen udaletxean bertan. “Besteak etxera ekartzen nituen. Hura zen pisua!”.




gainbeheran

AZOKA?

Azokako postuzaleak astearte goizeko ordu txikietan hasten dira txokoak prestatzen. Auto-ilarak, sarbidea oztopatuta, igogailu bakarra denentzat...; ez da lan makala





1. NAHASTEA.

Postuzaleak azokara iristean, auto-ilarak sortzen dira.

2. PILATUTA

Produktuak pilatuta ekartzen dituzte, desorden organizatuan.

3. ORDENA.

Ibilgailuak bata bestearen ondoan jartzen dituzte.

4. OZTOPOAK.

Baserritarrek eskaileratik dute sarbidea: kaxak banaka igotzen dituzte.

5. BEZPERAN.


Batzuek nahiago dute bezperan jarri postua eta goizeko anabasa saihestu.

6. IGOGAILUA.

Postuzale gehiegi dago igogailu bakarrarentzat.

7. LEHENAK.

Arrain saltzaileek lehenasuna daukate igogailua hartzean. ◀



Korrikaren alde ▶



hIntza Agirretxe Uztarriako ordezkaria, Korrikako lekukoarekin, 2005ean.

Martxoan izango da aurten Korrika, euskararen aldeko lasterketa; 15. aldia da, hain zuzen. Eta oraingo edizioan ere Uztarría Kultur Koordinakundeak parte hartu eta diruz lagunduko du.

Hilaren 25ean, goizaldean. Korrika Azpeititik hilaren 25ean pasatuko da, goizeko 3:55ean. Dei egiten diegu azpeitiar euskaltzaleei bertan parte hartu eta, ahal bada, diruz lagun dezaten. ◀



KULTUR AGENDA ▶

Hilabetea.

Martxoa.

Banaketa.

Asteburu honetan.

Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.

Uztarría Kultur Koordinakundea.

Bazkietza ordainduta ez dutenei oharra. Uztarriako bazkide batzuek, arrazoi desberdinak tarteko, oraindik ez dute urteko bazkietza ordaindu. Deitu 943 15 03 58ra.

9 urte bete ditu UZTARRIA KULTUR KOORDINAKUNDEAK



Patxi Saiz kantaria, Uztarría sortu eta hilabetera Azoka Plazan egin zen festan, 1998ko apirilean.

Hauxe zioen Uztarría Kultur Koordinakundeak sorrerako idatzian, 1998ko martxoaren 3an: "Azpeitian [Kulturaren, Euskararen eta Komunikazioaren] egoera minimo baten azpitik gaude (...). Fase berrian sartu beharra dago. Uztarría ez doa inoren kontra, kulturaren aldeko proiektua da hau, eta Udala, herritarrak eta taldeak ezinbesteko dira".

Herriko euskara eta kultur eragileek sortu zuten Uztarría. Bederatzi urte pasatu dira, eta herrian arlotan hobeto gaude, denon lanari esker.

Hobeto egon gaitzeko. ◀

informazio gehiago:

www.uztarria.com/azpeitia/taldeak/uztarria



1.053

bazkide gara dagoeneko Uztarriari; eskerrik asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

HELBIDEA ▶

TELEFONOA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

NAN edo EHNA ▶

HERRIA ▶

E-MAILA ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarría herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
- ▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburua.
- ▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.
- ▶ *Otsobeltz* liburua.
- ▶ *Urrestillako musika taldeak* liburua.
- ▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida eta Azpeitiko elementideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

- ▶ Uztarría herri aldizkaria.

Albisteak ▶ erantzunak

Hurrengo urtera arte adio karnabalei

Karnabalak bukatu zirenean, uztarria.com-ek festei buruzko albistea egin zuen. Helduen mo-zorro lehiaketaren berri eman zuen, besteak beste. Albistearen erantzunetan, Erramun Aizpuru-ren eta Mirenen arteko eztabaida sortu zen mo-zorro batzuek gaia erlijioa zutela-eta. Hona hemen haien sorta bat.

azpeitiar askoren sinesmenak irrigarritzat hartu. Araudiren bat eskatzen diot Udalari. Eta, gainera, sarituak izan dira taldeok. Ez dut zalantzarik azpeitiar asko minduta daudela aitortzen. Minduta eta isilik. Ez eta ez! Beude inauteriak bere esparruan.

▶ Erramun Aizpuru

batek, mediku batek... Azken batean, inauteriak ondo pasatzeko dira eta amabirjinari begira guztiok gozatu genuen, aspaldi Azpeitian izan den mo-zorro-rik lortuena izan dela esango nuke. Zorionak lñaki eta bere lagune! Saria ondo merezia zenuten.

▶ Miren

eta hori, asturiar gehienentzat biraoa izango litzatekeelako. Eta, jakin ezazu, berdin gaitzetsiko nukeela buda edo edozein jainkosa inauteri gai bihurturik ikusiko banu.

▶ Erramun Aizpuru

Erantzunak

Irririk ez!

Nik inauteriei zer kendu behar zaien adierazi nahi dut ozenki eta indar guztiz. Aste Santua –amabirjina eta guzti– hartu du talde batek bere irri gaitzat. Azpeitiarrok asko maite izan dugu eta maite dugu amabirjina. Onartezina da, biraogarria, hori trufagai hartzea. Eta zer esan lehen jaunartzeari buruzko elizbideari buruz? Tamalgarrria, arbuigarria Ezin daitezke

Karnabalak direla!

Erramuni erantzunez, bere idatzia lekuz kanpo dagoela iruditu zaidala esan nahi nioke; are gehiago, haserre puntu bat ere piztu duela nigan. Inauteriak direla! Azpeitiko karnabalak! Zure irizpidearen arabera, mo-zorro guztiak errespetu falta adierazten dute orduan. Zure idatzian tolerantzia eza nagusitzen da. Zure sinesmena guztiz errespetagarria iruditzen zait, baina errespetu bera merezi du amabirjinarengan sinesten ez duen pertsona batek, hindu batek, japoniar batek, eskale

Iraina da

Nondik atera duzu, Miren, inauteriak ondo pasatzeko direla? Ez al dugu guztiok, zuk diozun bezala, "ondo pasatzeko" eskubiderik? Badakit, jakin, askok eta askok iraindua ikusi zutela beren burua horrelako amabirjin sarituaren irudi eta trufekin. Agian, beste adibide honek zerbait argituko dizu. Ezagutzen *Asturias patria querida* abestia? Edonon, mozkorraldi guztietan abestu ohi zuten baina, Asturiasko eresi bihurtu eta gero, debekaturik dago egoera horietan abestea;

Mozorroak baino ez dira

Aitortu behar, Erramun, lastima sentiarazten didatela zure hitzek. Nire ondorioa: inauteriak kritikatu dituzun moduan kritikatzeko duen elizgizonaren barruak ez du gustura behar. Inauterietakoak mo-zorro batzuk besterik ez dira izan. Egunero-ko bizitzan kristauz mo-zorro-tuta dabilenak ematen dit niri pena.

▶ Miren

Inauteriei bai...

Ez dut inoiz inongo inauteririk "kritikatu". Eta hori argi bezain ozenki aitortu nahi dizut, Miren. Aitzitik, oso gogoko ditut eta urteak eman ditut Tenerifeko inauterietan murgildurik. Zuzendari izan naizen institutuetan nik neuk antolatu ditut, baita Londresen eskura nuen taldearekin ere. Beraz, inauteriek oso gustukoak ditut. Batez ere, Frazer, Julio Baroja eta abarren inauterietako oinarriak ikasi ondoren, baita unibertitatean eta ene bakarkako azterketetan ikasitakoaren ostean ere. Utzi nirekiko sortzen zai-zun "lastima". Ez naiz errukarria.

▶ Erramun Aizpuru

Inkesta ▶

Behin ere joan al zara Txikiteo Eleganteko jantzia erostera?

%34,3

Bai

%27,7

Ez, antzinakoa janzten dut

%38

Ez naiz 'elegante' janzten

Orain dagoen galdera. Parte hartzen al duzu Korrikak antolatutako ekimenetan?

Komiki bloga ▶ www.uztarria.com/blogak/salegi

Etxebizitzie

▶ Andoni Salegi



Otsobeltz



Arauk ▶

Webean arau hauek bete behar dira idazteko.

1. Erregistratu egin behar da.
2. Albistea edo Iritzian izen-abizenez sinatu.
3. Akusazioak eta irainak ez dira onartuko.
4. Euskaraz idatzi.

JOAN...



Gurean ▶

LUIS MEDIAVILLA

▶ emagina

“Gutxi ezagutzen dut herria”

Luis Mediavilla emaginak etxean erditzearen inguruko hitzaldia eman zuen otsailaren 8an Sindikatu Zaharrean. Uztarriak harekin hitz egin zuen herriaz eta etxean erditzeko erabakiaz.

Azpeitira etorri zaren lehen aldia al da?

Ez, lehenagotik izana naiz hemen. Bertako festak ere ezagutzen ditut.

Zer iritzi duzu azpeitiarrez?

Jendea gutxi ezagutzen dut, baina erditzen lagundu nion neska bat ezagutzen dut eta oso jatorra da.

Azpeitiarrak kontzientziatuta al gaude etxean erditzeko aukerarekin?

Orokorrean, nekazal eremuetan hirietan baino kontzientziazio handiagoa dago.

Etxeko erditzeak izan ditugu Azpeitian, Pikuñetan eta Zestonan, esaterako. ◀



150 urte Garate anaia jaio zela

1857ko otsailaren 3an jaio zen Francisco Garate Loiolako Errekarte baserrian. Hori ospatzeko, Donostiako gotzain izandako Jose Maria Setien buru zela, meza izan zen Loiolako Basilikan (argazkian, une bat) otsailaren 3an. Azpeitiko Parrokiko abesbatzak kantatu zuen. Egun berean, Garate anaiairen jaiotea berrinauguratu zuten.



Etxeberria preso berriro

Garikoitz Etxeberria Kafe otsailaren 4an atxilotu zuen Bilbon Ertzaintzak, *Haika-Segi auziagatik*. Otsailaren 9tik Bonxeko (Galizia) kartzelan dute preso. Lehen ere egon zen. Argazkian, Bilbon.



Karnabal giroa nagusi

Otsailaren 10ean iragarri zuten kaldereroek Karnabalak bazetozela. CD estreinatu berriak biltzen dituen kantupean igaro dira aurtengoak. Argazkian, helduen moztro lehiaketako taldekako irabazleak.

Epaitegia berritzeko lehen harria jarri dute

Urte eta erdi iraungo dute epaitegi berriko lanek eta 2,5 milioi euroko aurrekontua izango dute. Lehen harria jartzen Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren, otsailaren 12an.



OTSAILAK 2 ▶ Matxinbentako Santa Ageda jaien hasiera. **OTSAILAK 8** ▶ *Aparkalekuko Felizidadia*; poesia eta irudiak batzen dituen ikuskizuna izan zen Orkatz Kultur Elkartearen. **OTSAILAK 9** ▶ Juan de Antxieta Musika Eskolako ikasleen piano emanaldia. **OTSAILAK 11** ▶ Karnabaletako CDaren aurkezpena egin zuten udaletxean. **OTSAILAK 22** ▶ Udalak tasatutako etxebizitzentzat ordenantza onartu zuen. Halako etxeak hainbat lekutan egiteko asmoa du: kuartel zaharrean, Agirreanean eta Nuarben, besteak beste.

SAN JOSE JAIK LOIOLAN

HILAK 17 ▶ 16:30ean biatloia: VI. San Jose Sari Nagusia. **HILAK 18** ▶ 12:00etan zezen txikiak eta poniak. 13:00etan asto lasterketak. 17:30ean herri kirolak: Goenatxo II.a eta Aimar Irigoien harrijasotzaileak eta Donato Larretxea eta Floren Nazabal aizkolariak (hamar enbor kanaerdikorekin). Egun guztian Egurrola eta Berastegi txikitilariak ariko dira. **HILAK 24** ▶ 09:00etan auzo afaria, Elustondo anai-arrebek girotuta.

**XIV. NAZIOARTEKO MARATOI ERDIA.**

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia Diego Garcia lasterkalaria hil zela sei urte betetzen diren egun berean izango da aurten. Parte-hartzaileek 20 kilometro pasatxo egin beharko dituzte.

HILAK 31 ▶ 16:30ean ▶ Azkoititik abiatuta. Helmuga: Loiola etorbidean ▶ Xeye taldeak antolatuta

NEREA ARANGUREN ▶ Azpeitiko Korrika Batzordeko kidea

“Korrikako **egunean handia** da parte-hartzea baina aurretik ez”

Korrikaren 15. edizioa martxoaren 25eko 04:00ak aldera pasatuko da Azpeititik. Bi urtean behin euskararen alde egiten den lasterketa erraldoia Karrantzan (Bizkaia) abiatuko da martxoaren 22an eta apirilaren 1ean Iruñera helduko da. Eki-mena behar bezala ateratzeko lanean dihardu Nerea Aranguren Azpeitiko Korrika Batzordeko kideak.

“Urtarrilaren 31n egin genuen lehen bilera gutun, kartel eta e-mail bidezko deialdi zabala egin ondoren”, dio Aranguren. Izan ere, lasterketa herritik pasatzen den eguneko antolakuntzaz gain, hamaika kontu lotu behar izaten dute antolatzaileek. Korrika Kulturalaren baitan, esaterako, *Gu eta gutarrak* saioa izango da martxoaren 9an, Gaztetxean.

Korrika Azpeititik igaroko den asteburuan ekitaldi

batzuk izango da; martxoaren 23an herriko ikaste-txeetako haurrentzako Korrika Txikia antolatu dute, eta martxoaren 24an txotxa izango da Azoka Plazan eta dortsalak banatuko dituzte lasterketan irten nahi dutenen artean.

Korrika Batzordeko kideak herritarrei zuzendutako kexa bat ere badu. “Korrika pasatzen den egunean handia da parte-hartzea Azpeitian, baina aurretik ez hainbeste”. ◀

MARTXOAK 25 ▶**Korrika 15.**

- ▶ 03:55ean pasatuko da lasterketa.
- ▶ Zestoa aldetik Azkoitia aldera joango da.
- ▶ AEK erakundeak antolatuta.

...ETORRI**Besterik ▶****BERTSO ASTEA 07****MARTXOAK 2 ▶****Bertso Txapelketa azkarra.**

- ▶ 20:30ean.
- ▶ Borondegri tabernan (Errezil).
- ▶ Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta.

**MARTXOAK 9 ▶****‘Gu ta gutarrak’ saioa.**

- ▶ 22:30ean.
- ▶ Gaztetxean (Azpeitia).
- ▶ Erniarraitzek eta AEK-ak antolatuta, Korrika Kulturalaren baitan.



GUILLERMO AIZPURU ▶ gudaria Espainiako Gerran

“Estatu Nagusiko transmisio sarjentu izendatu ninduten”

Guillermo Aizpuru *Organeikue* 1917ko urriaren 2an jaio zen Azpeitian. Espainiako Gerra hasi zenean 18 urte zituen eta Lekeitio aldera ihes egin zuen aitonaekin eta aitarekin batera. Boluntario aurkeztu zen Eusko Gudarostean, eta elektronika eta irrati kontuetan espezializatu zen hasieratik. Bere abilezia ikusita, lurre-ko Estatu

▶ Testuak eta argazkiak: **Maidier Zendoia (Irun)** ▶ Dokumentu zaharrak: **Guillermo Aizpuruk utzita**



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

Nagusira bidali zuten eta han transmisioetako sarjentu izatera iritsi zen. Laredon (Espainia) atxilotu zuten 1937ko abuztuan eta, ondoren, zortzi urte egin zituen preso. Gaur egun 90 urte ditu eta Irunen (Gipuzkoa) bizi da.

Nola gogoratzen dituzu Espainiako Gerra atariko egunak?

Gerra hasi zenean, 18 urte nituen eta gerra Azpeitira iritsi baino bi edo hiru egun lehenago joan ginen Lekeitiora aitona, aita eta hirurok. Familiako organegia konfiskatu egin ziguten; 'incautación de responsabilidades políticas'

deitzen zioten horri. Ni boluntario aurkeztu nintzen Eusko Gudarostean eta *Larreako Batailoiko* kide egin nintzen. Barku batetik ostutako bederatzi emisore zituzten lurren eta tramankulu haiek martxan ezin jarrita zebiltzan. Ahal nuen moduan saiatu nintzen haiek martxan jartzen eta, denbora gutxian, nire taldekideei irakasten jarri ninduten. Azkenean, lurreko Estatu Nagusiko transmisio sarjentu izendatu ninduten.

Hortaz, etsaiak egiten zuenaren berri ematea zen zeure eginbearra, ezta?

Nazionalak zituzten emisore berak genituenez, haiek esandako guztia entzuten genuen. Sarritan izaten genuen egin behar zutenaren berri. Gainera, beraiek ezkutuko koderik gabe hitz egiten zuten edozertaz; guk, aldiz, zenbakietan oinarritutako kodeak erabiltzen genituen komunikatzeko. Gainerakoan, haien eta gure armamentua ez zegoen konparatzerik!

Eusko Gudarosteak ba al zuen zereginik Francoren tropek zituzten baliabideen aurrean?


Nik behin ere ez dut ikusi Euskal Herrian egin zen bezalako gerra bat: Eibartik Bilbora 44 kilometro inguru daude, eta distantzia horretako fronteak egiteko hiru hilabete behar izan zituzten erreketek. Egunez erreketek erasotzen zuten, baina gauez kontraerasoak etortzen ziren. Erreketek zituzten artilleria eta abiazioa izugarriak ziren. Beraz, ez zen nolana hikoia izan Bilbo eta Eibar artean egindako lana.

Gerra hasi eta urtebetera atxilotu zintuzten, 1937ko abuztuan.

Atxilotu ondoren, kontzentrazio

“Ni boluntario aurkeztu nintzen Eusko Gudarostera eta ‘Larreako Batailoiko’ kide egin nintzen”

“Gerra ondorengo urteak ez ziren errazak izan; edozein aitzakiarekin ixten ziguten familiko hotela”



Aizpuru, Irungo batzoki kanpoan. Ondoko orrialdean, barruan.

esparruetara eraman ninduten. Bilbo nazionalen esku zegoen 1937ko ekainaren 19az geroztik etan urte bereko abuztuan atxilotu ninduten. 1937ko abuztuaren 26tik 1939ko maiatzaren 29ra arte egon nintzen preso kontzentrazio esparruetan. Han lizentziatu egin ninduten eta Azpeitira itzuli nintzen, baina herrian denbora gutxi neramala, berriz ere deitu egin ninduten *Batallon Disciplinario de Soldados Trabajadores*-era joateko. Hura askoz ere okerragoa izan zen, bertan nengoela errepideak eta horrelako lanak egin behar izan baini-

tuen. Guztira, zortzi urte igaro nituen preso.

Zer moduz kontzentrazio esparruetan?

Haietan batera egondako azpeitiarrak badituzte gogoan: Antonio *Konfites*, Justo Larrañaga eta beste hainbat. Kontzentrazio esparruetan ez genuen lanik egin eta, egia esan behar bada, nahiko tratua eman zigutela derizot.

Handik Azpeitira itzultzean, nola hartu zintuzten herritarrek?


Kontzentrazio esparruak bertan behera geratu zirenean, etxera itzuli ginen. Egun batean udaltxera joan nintzen eta han ostikadaka hartu ninduten; Guardia Zibilaren kuartelera joateko agindu zidaten. Gerra ondorena gogorra izan zen. Nik ez nuen zorigaitzik pasatu baina mila gauza gertatzen ziren egunero.

Eta gero berriz ere preso *Trabajadores*-etara?

Bai. Donostiara Herrerako Ingeniaritza Parkera bidali ninduten gotorleku bat eraikitza 1938an. Geroago, errepideak ere eraiki genituen. *Batallon Disciplinario de Trabajadores*-etan egotea oso gogorra zen, lan gogorrak egitea tokatzen zitzaigulako. Handik Gasteizko 46. artilleria erregimentura bidali ninduten. Preso nengoela irabazi nuen nire lehen soldata. Irratiak konpontzen oso trebea nintzen eta, ondorioz, beti ematen zidaten konpondu beharreko zerbait.

Gerra ondoren, nola egin zenuen aurre bizimodu berriari?

Batallon Disciplinario de Trabajadores-etik atera nintzenez, Donostira joan nintzen bizitzera. Ama eta arreba han zeuden, eta nik organegia saltzea erabaki ▶



AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain Larrialdiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

 **domusa**

» nuen. Donostiatik Hondarribira mugitu eta han hotela zabaldu genuen. Baina ez ziren urte errazak izan. Aitzakia bat edo beste ahotan hartuta hotela hiru aldiz itxi ziguten. Gainera, Meliton Manzanas ospetsuak bi aldiz atxilotu ninduen nire historiala zela-eta. Hondarribitik Donibane Lohitzunera joan nintzen organoak konpontzera 1949 aldera, handik Parisera 15 egunerako eta, azkenik, Alemaniara.

Badira bueltak...

Alemaniatik Erromara joan nintzen, Iglesia Española de Montserrateko organoa konpontzera. Han nengoela Arteaga kubatar kardinala etorri zitzaidan, Kubara joan nahi al nuen galdezka. Handik egun gutxira, aldiz, Spellman amerikar kardinalak proposatu zidan Ameriketako Estatu Batuetara joateko. Nik erantzun nien agiriak aurrena prestatzen zituen herrialdera joango nintzela eta horrelaxe erabaki nuen Kubara joatea. Bertan pasatu nituen zazpi urte (1950-1957).

Herrira bueltatzeko gogorik ez al zenuen?

Habanatik Euskal Herrira etorri eta ezkontzea pentsatu nuen. Hori egin baino egun batzuk lehenago, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin egin nuen topo Habanan. Agirre lehendakaria nigana etorri zen eta berarekin argazkia atera nahi nuen galdetu zidan. Nik esan nion ilusio handia egiten

Azpeitiko okupazioa

Txostenak. Guillermo Aizpuru Estatu Nagusiko transmisio sarjentu izendatu zuten. Irrati bidez entzundako informazioarekin idazten zituen Aizpuruk

etsaiaren inguruko txostenak. Irudian, Gipuzkoako kanpainan erabilitako mapa ikus daiteke. Bistan denez, Bidania aldetik sartu ziren erreketek Azpeitira.



Gipuzkoako kanpainan erabilitako mapa.

Mehatxuak

Frantziara alde egiteko gonbitea.

Guerrilleros de Cristo Rey taldekoek eskutitz bidez mehatxatu zuten Guillermo Aizpuru.

Ettera bidalitako idatzi batean, ondorengo adierazi zioten: "Desagertarazi beharreko 346 pertsonako zerrendan zaude. 'Kolpe bat' gertatzen bada, zure emaztearekin Frantziara joan zaitez segundo bat ere galdu gabe. Aholku bat da... 'Nobleza obliga'".

Guillermo Aizpuruk orain barre egiten du pasadizo hura gogoratzean, baina argi dauka gerra ondorengo urteetan ez zela erraza izan bizimodu normalari eustea.

ESTÁS EN UNA LISTA DE 346 INDIVIDUOS "A LIQUIDAR".
SI OCURRE "UN GOLPE" VETE A FRANCIA SIN PERDER UN SEGUNDO CON TU MUJER.
ES UN CONSEJO...

"NOBLEZA OBLIGA..."

Guerrilleros de Cristo Rey taldekoek Aizpururi etxera bidalitako eskuizkribua.

Gerrako kontu gehiago. Gudako kontu gehiago jakin nahi izanez gero, Uztarriak *Azpeitarrak Espainiako Gerran* liburu atera zuen iazko irailean, Amaia Mendizabal kazetariak eginda. Elkarrizketa liburu da.



Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

arte eta diseinu ikastegia

- Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura** 17:30/19:00
- Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 619 586 652
matrikula urte guztian zabalik

kutxa

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Garai latzak


Familia sakabanatuta.

Gerra hasi bezain laster antzeman zuen Aizpuruk gudaren eragina. Aitona eta aitarekin ihes egin ondoren, Lekeitiora jo zuten. Handik aita (Felix Aizpuru) Frantziara joan zen eta aitona (Remigio Egiguren) Hondarribira. Guillermo preso sartu zuten. Gerraren atzaparrek etxeakoak ere ez zituen bakean utzi; Azpeitian geratu ziren ama eta arreba, baina herria utzi eta Donostira joan behar izan zuten bizitzera.

Gerra kontuak

Anaia arteko borroka. Gerra garaiko gertaerek ezabatu ezin diren arrastoak uzten dituzte urteetarako. Eta ez da gutxiagorako; Guillermo Aizpuruk pasadizo gogor baten testigantza izan zuen orduan. *Tercio San Ignacio*-k Peña Lemonan egindako erasoan, Aizpururen batailoi kide zen *Compagillo*-ren bi anaiak erreketekin ari ziren borrokan, eta beste biak, berriz, Eusko Gudarostearekin. *Potxin* -*Compagillo*-ren anaia erreketea- trintxeran zaurituta aurkitu zuen Tomas Alegria

kapitainak zuzendutako batailoiak. Agustin Eriz -batailoi horretako kidea- gerturatu zitzaionean, *Potxin* tiroka hasi omen zitzaion. Orduan, Erizek *Potxin* tiroz hil eta sakelako diru zorroa kendu zion. Taldera itzultzean, azpeitiar baten diru zorroa erakutsi zuen Erizek, eta Guillermok segidan jakin zuen *Compagillo*-ren anaiarena zela (barruan zegoen argazki batean azaltzen zen). Gertatutakoa azaltzean *Compagillo*-k honakoa esan zien: "Ni han egon izan banintz, neronek hil beharko nuen".



Guillermo Aizpuru gaztea zela, kontzentrazio esparru batean.

Preso

Kontzentrazio esparruak.

Aizpuru 1937ko abuztuaren 26an atxilotu zuten. Laredoko (Espainia) kontzentrazio esparrura eraman zuten aurrena, eta handik Logroñora eta Burgosera (Espainia). Herrira itzuli ondoren, berriro hartu zuten preso baina oraingo honetan *Batallon Disciplinario de Soldados Trabajadores*-era eraman zuten. Gogorra egin zitzaion hango denboraldia, lan gogorrak egin zituelako. Herrera (Donostia) Ingeniaritza Parkean eta Gasteizko 46. artilleria erregimenduan aritu zen.

zidala, eta halaxe atera genuen argazkia. Ni traje zuri batekin eta hura urdin kolorekoarekin; benetan dotore atera ginen biok. Argazki hura hedabideetan argitaratu zuten gero eta Madrilera Barajasera iritsi nintzenean polizia zain neukan.

Horregatik?

Agirrerekin ateratako argazkia erakutsi zidaten eta ziegara sartu ninduten. Han barruan biluztu egin ninduten eta poliziak honakoa esan zidan: "Aizpuru, denbora gutxian izango haiz gurean, arma boteretsuegia baituk ziegan jarraitzeko". Ni zur eta lur geratu nintzen eta armarik ez nuela adierazi nion. "Lurrera begira ezak!", hark. Orduantxe konturatu nintzen biluztean beti soinean eramaten nuen arrosarioa erori zitzaidala lurrera. Hurrengo egunerako kalean nintzen.

Geroztik Irunen bizi zara. Zer pentsatzen duzu Euskal Herriak bizi duen egoeraz?

Fidel Castrok Kubako iraultzan esana gogoan dut: "Armak zertarako, herria edukita? Demokrasiari, demokrazia handiagorekin aurre egin behar zaio". Baina oraindik uniformeak ez du kendu Castrok... Indarkerian oinarrituta ezin da demokrazia eskatu. Denok elkarrekin bizitzen ikasi behar dugu, eta zure etsaierik handiena lagun bilakatzen jakin behar duzu. Horixe da bizimodu honen gakoak. ◀

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

Tiobibo musika taldeari egindako bideoklipa



3, 2, 1... grabatzen!

Natatxa Films taldeko kideek zortzi urte daramatzate zinemagintzan. Martxoan 'Cronos' film laburra errodatzen hasiko dira, Arkatxonen

► Testuak: Mainer Zendoia ► Argazkiak: Natasha Films taldeko kideek utzita

Zinema atsegin duen Azpeitiko lagun talde batek ikus-entzule soil izateari utzi eta zazpigarren artearen tripekin esperimentatzea erabaki zuen 1999an. Natatxa Films izena jarri zioten taldeari. "1999ko udazkenean hasi zen dena. Tabernan geundela, egunkarian irakurri genuen aldizkari batek antolatutako lehiaketa zegoela minutu eta erdiko luzera zuen film laburra egiteko", dio Netzer Bereziartuak. *Recordman* egin zuten.

Hala hasi ziren Leire Urbieta, Jon Berdejo eta Netzer Bereziartua komiki batetik ateratako txisteari forma ematen. Film laburrak bere buruaz beste egiten duen gaztearen istorioa kontatzen du.

Gaur egun lau taldekide baditu ere (Netzer Bereziartua, Jon Berdejo, Karlos Ibarbia eta Itziar Arratibel), bederatzi taldekide izatera iritsi ziren orain lau urte. 1999tik dihardu taldeak zinemagintzan, eta dagoeneko hiru film labur, bi iragarkia eta bideoklip bat filmatu dituzte. Laugarren filma grabatzekotan dira orain, martxoan –*Cronos*–, eta antolaketa kontuetan dabilta.

Aurreneko filman eskuartearen genuen materiala "eskasa" zen, "eta, gainera, egin beharreko efektu bereziak-eta zeharo esperimentalak ziren", dio Netzer Bereziartuak. "Horrela, tiroa botata hiltzen zen protagonista irudikatze zeko [zuri beltzean da filma],

txipiroi tinta sartu genion kamiseta barruan jarritako tutu batean, baina itxuraz gaizki zintzilikatu genion eta txipiroi tinta guztia kamisetan zabaldu zitzaion".

► PROTAGONISTA GAIXOTU.

Bigarren film laburra 2000 eta 2001. urteen artean errodatu zuten: *Bazkaria poxpolotan*. Protagonista grabazioa baino aste-bete lehenago gaixotu egin zen eta, ondorioz, Antxieta Antzerki Taldera jo zuten protagonista bila. Horrela ezagutu zuten Karlos Ibarbia. "Nirekin aktore lanean aritzeko jarri ziren harremanetan baina, azken batean, teknikoki ere asko saltseatu izan dut proiektuetan", dio Ibarbiak.

Fitxa teknikoa

Sorrera.

► 1999. urtea.

Filmografia.

► *Recordman* (1999-2000).

► *Bazkaria poxpolotan* (2000-2001).

► *Bailara* (2002-2003).

► EHNaren aldeko lehen iragarkia (2002).

► EHNaren aldeko bigarren iragarkia (2004).

► Tiobiborentzako CD multimedia (2004).

► *Cronos* filmatzen hasiko dira martxoan.

Taldeko kideak.

► Netzer Bereziartua.

► Jon Berdejo.

► Karlos Ibarbia.

► Itziar Arratibel.

Bazkaria poxpolotan Azpeitiko Parrokian filmatu zuten, baina beharrezko baimenak lortzeko, Donostiako Gotzaindegira jo behar izan zuten. "Aitortu beharra dago Kepa Susperregi erretorea oso ondo portatu zela gurekin, berak erabiltzen zituen arropak eta guzti utzi zizkigulako", dio Berdejok.

Emazte batek bere gizona hil eta flash back bidez gogoratzen du ezkondu zen egunean "heriotzak banandu arte" esan ziola apaizak; horixe da bigarren film laburraren sinopsia. "Albistegi-tan betitik entzun izan dugu gizonetzko batek emakumezko bat hil



duela eta guk errealitate horri buelta ematea erabaki genuen", esan du Netzer Bereziartuak. "Gure maila ekonomikoki eta teknikoki oso mugatua da, baina lortutako emaitza nahiko txukuna izan zen", erantsi dio Ibarbiak. Ildo horretan, gogoratzen dute jendea seko harrিতuta geratu zela filma 30 euroekin egin zegoela esan zutenean Zestoan izandako emanaldi batean.



► **ERREFERENTZIA.** Hirugarren filma erreferentzia puntu bilakatu da Natatxa Films taldearen ibilbidean. Izan ere, *Bailara*-k 16 minutuko iraupena du eta filmeko musika, gidoia, muntaia, jantziak, efektuak eta grabazioa taldekideek beraiek eginak dira. Hirugarren filmari eman diote zabalkunderik handiena; Beizamako festetan estreinatuta zuten eta, ondoren, Azpeitian Soreasu aretoan eta Eibarko film laburren lehiaketan aurkeztu zuten. Berdejoren iritziz, "garai hartan taldeak klimaxa bizi zuten, orduan parrandak eta guzti egiten genituelako pelikulari buruz hitz egiten".

Hirugarren film laburraren ostean, EHNAren aldeko taldearentzako bi iragarki grabatu zituzten. "Kanpoko eskaera baten arabera grabatzea esperientzia berria izan zen taldearentzat", dio Ibarbiak. "Muntaia egin ondoren, irudiak kolpeka geratzen ziren eta,



“1999an hasi zen dena, egunkari batean irakurri genuenean lehiaketa zegoela minutu eta erdiko film laburrak egiteko”

NETZER BEREZIARTUA ▶
Natatxa Filmseko kidea

“Bailara” bigarren film laburra egin genuenean taldeak klimaxa bizi zuten; parrandak egiten genituen pelikularen inguruan hitz egiteko”

JON BERDEJO ▶
Natatxa Filmseko kidea

“Nirekin aktore lanetan aritzeko jarri ziren harremanetan, baina azkenean teknikoki ere asko saltseatu izan dut eskuartean izan ditugun proiektu guztietan”

KARLOS IBARBIA ▶
Natatxa Filmseko kidea

hori ez nabarmentzeko, Berdejok kolpe horien erritmoa irudikatzen zuen musika jarri zion iragarkari”, dio Netzer Bereziartuak. Ibarbiak uste du gabeziak imajinazioa lanteraz behartu dituztela.

Bi iragarkiak grabatu eta gero, CD multimedia egin zuten Tiobibo Azpeitiko musika taldearentzat. *Aurpegia* eta *Piztiak* abestien bideoklipak, kantuen letrak eta grabazioko argazkiak biltzen zituen CDak. Berdejoren ustez, “elementu berri bat sartu genuen, iluminazioa, eta hori kontrolatzea asko kostatu zitzaigun. Are gehiago, ez dakit guztiz kontrolatzera iritsi ginen”.

Martxoan *Cronos* izeneko film laburra errodatzen hasiko dira. Proiektu hori gauzatzeko eguraldi ona behar dute, eta hortxe dabilta taldekideak, Meteorosateko iragarpenei begira. Izan ere, filma desertu batean dago kokatuta eta, horregatik, Arkatxoneko (Frantzia) Pila dunara joango dira. Berdejok dauka kokalekua aukeratu izanaren zergatia: “Gure asmoa Marokora joatea zen baina kalkulagailuak ezezkoa eman zigun...”. Imanol Uriberen partaidetza izango dute.

Aurrera begira, ez dute film luzeak egiteko aukerarik ikusten. DVDa zeluloidera pasatzea minutuko 450 euro kostatzen da, eta hori 30 euroko filmak egiten dituen taldearentzat gehiegi da. ◀



herriko gorabeherei BEGIRA

Eustatek azken urteotako bilakaera jaso du kaleratu berri duen azterketan: Azpeitiak hazkunde begetatibo positiboa du, %85ek hitz egiten dute euskaraz, errenta pertsonala 13.262 eurokoa da...

► Testuak: Ane Aranburu ► Argazkia: Uztarria



Azpeitian, Eustaten datuen arabera, 142 haur jaio eta 96 pertsona hil ziren 2004an.

Estatistikaren Euskal Institutuak (Eustat) jakinarazi ditu datu berriak. Hauek dira Azpeitiko batzuk.

Hazkunde begetatiboa. Azpeitiak 2004an hazkunde positiboa izan zuen; urte horretan heriotzak baino jaiotza gehiago izan ziren. Hain justu, 96koa izan zen heriotzen kopurua eta guztira 142 ume jaio ziren orduan.

Euskaraz. Euskararen ezagutzari dagokionez, EAEn euskal hiztun

gehien dituzten herriak Azpeitia, Markina eta Mutriku dira. Herriotan %85 inguruk hitz egiten dute euskaraz.

Ikasteredua. D eredua da nagusi Azpeitian; alegia, euskarazko eredua. 2004-2005ean, 2.360 ikaslek ikasi zuten D eremuan. 303k egin zuten Bn (euskaraz eta gazteleraz) eta inork ez zuen ikasi An (gazteleraz soilik).

Diru sarrerak. EAEko diru sarre-
rarik handienak dituzten pertso-

Datu gehiago

Eustat-en ez ezik, Azpeitiari buruzko datuak Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategian ere aurki daitezke. Haien webgunearen helbidea hauxe da: www.gaindegia.org

nak Laukizen –Bizkaia– bizi dira: 23.363 euroko sarrerak dituzte. Azpeitiko batez besteko errenta

pertsonala 13.262 eurokoa zen 2001 ean.

Migrazioa. 93 pertsonak inmigratu eta 58k emigratu zuten 2005ean Azpeitian.

Gizarte zerbitzuak. Hamar gizarte zerbitzuko zentro zeuden zabalik herrian 2004an.

Ospitalez kanpoko zentro publikoak. Hiru zentro zenbatu zituzten 2004an: anbulatorioa, larrialdietarako zerbitzua eta seguruetako laguntza zentroa. ◀




AZKETA ESTALITA.

Aurten negua berandu iritsi bada ere, tenperatura hotzekin batera heldu ziren lehen elurteak herrira. Argazki nagusia urtarrilaren 27an atera zuten Xoxote aldera abiatutako herritar batzuek. Irudian ageri diren elurteko bi zulotxoak Azketako iturriaren kanila eta aska dira. Goian ezkerrean, Azketako iturria elurrik gabeko egun batean ikus daiteke. Bitxia Xoxote bidean ur tragoxka bat hartzeko dagoen gunerik ezagunenaren jantzia.

► Testua: Maider Zendoia ► Argazkiak: Martxel Agirrezabalaga (handia) eta Juan Joxe Agirre (txikia)

Efemerideak ▶ martxo



Azpeitiko igerilekua UZTARRIA

udaberri hasierako KONTUAK

Istripuak, industrialde berria, igerileku estalia... hamaika kontu izan da martxoan!

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uzartaria)

MARTXOAK 1-1987 ▶

Pako San Sebastian istripuz hil zen. Azpeitiar mendizalea Luz Ardidenen (Frantzia) hil zen teleaulki bat hautsi ondoren.

MARTXOAK 3-1977 ▶

Igerileku estalia abian. Igerileku estalia egiteko proiektua eta aurrekontua onartu zituzten.

MARTXOAK 4-1907 ▶

Egindako hutsuneengatik isuna. Egindako hutsuneak go-goan izanik, herriari elektrika argia eman zion Eladio Manuel Odriozolari 50 pezetako isuna ezartzea erabaki zuten.

MARTXOAK 7-2002 ▶

Zentral eolikorik ez. Izazpi-Samiño-Oleta eta Hirukurutzeta-Karakate zentral eolikoak atzera bota zituen Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak. Arrazoi nagusizat, bertan dauden metal garaiko aztarna arkeologikoak hartu zituen.

MARTXOAK 8-1987 ▶

Euskadiko Igeri Txapelketa.



Anardi industrialdea. NAIARA EXPOSITO

Udal Igerilekuan XXVI. Euskadiko Igeri Txapelketak hasi zituzten.

MARTXOAK 16-1517 ▶

Behobiako gotorlekua. 12.604 marai eman zizkion herriak.

MARTXOAK 17-1757 ▶

Edariak garestiago. Mistelaren prezioa 80 laurdenera igo zuten, eta pattarrarena, aldiz, 40ra.

MARTXOAK 21-2002 ▶

Anardi zabalik. Anardi industrialdea inauguratu zuten Danona Kooperatibaren inguruan. ◀

Pertsonaia ▶

JOXE LIZASOK 80 URTE.

Joxe Lizaso bertsolaria 1927ko martxoaren 10ean jaio zen Azpeitian, Enparan kalean. 80 urte beteko ditu, beraz, orain. Hemezortzi urterekin hasi zen bertsotan Arana kaleko San Miguel festetan. Makina bat plaza egin ditu harrezkero Joxe Lizasok.



Datua ▶

5

URTEANDIEGO GARCIAREN OMENEZ.

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia orain bost urte jokatu zen aurreneko aldiz Diego Garcaren oroimenez, 2002ko martxoaren 30ean. Garcia lasterkalaria aurreko urtean hil zen, martxoaren 31n. 2002ko edizioan inauguratu zuten haren irudia Azkoitia eta Azpeitia arteko pasean.

Argazkia ▶



I. ERNIARRAITZ LEIHAKETA.

Bertsolari Gazteen I. Erniarraitz Sariketa 2002ko martxoaren 1ean hasi zen. Bertan, Azpeitia, Zarautz, Zumaia, Itziar, Aizarnazabal, Zestoa eta Azkoitiko hamasei bertsolarik hartu zuten parte. Argazkian, leihaketako finalera iritsi ziren bertsolariak ageri dira.

Kontua da... ▶

Jesuitak noraezean

Hirurogeita hamabost urte bete dira II. Errepublikako gobernuak, 1932ko urtarrilaren 23an emandako dekretu bidez, estatuez gaindiko obedentzia eta agintaritzaren berezia zuten ordena erlijiosoak disolbatzea erabaki zuenetik.

Historiak jasotakoaren arabera, Errepublika proklamatu eta berehala sortu ziren istiluak, sua eman baitzioten zenbait eliza eta komenturi. Kasu horien artean aipatu behar da suak suntsitutako jesuiten Madrilgo etxea. Bertan, zenbait santuren irudiak eta 100.000 liburu zituen liburutegia ezerezean geratu ziren. Gertatzen zenaren aurrean, nobizioak eta jesuita ikasleek ihes egiten zuten. Baina zer gertatzen zen bitartean Azpeitian? Nolatan hartu zuten egoera berria herritarrek?

Dekretuaren berri eman eta bi egunera aztertu zuten gaia, 1932ko urtarrilaren 25eko udalbatzarre-

an, hain zuzen. Aurreko egunean sekulako manifestazioa izan zen herrian; herritarren gehiengoak parte hartu zuen bertan.

Ondorioz, Udalak herritar guztien sentimendua eta mina aktan jasotzea erabaki zuen. Era berean, esker ona adierazi zien jesuitei hainbat alditan eskainitako laguntza izpiritual eta moralarengatik. Une hartan gertatzen ari zenaren aurrean protesta berezi eta indartsua adierazi nahi zutelaren gaineratu zuten. Izan ere, Jesusen Lagundiaren sortzailearen izpiritua erabat baztertuta geratzen zela uste zuten; Azpeitiari ohorea eman zion pertsonaiarena, alegia.

Egun batzuk geroago agertu zen Kasto Orbegozo Azpeitiko alkatea Loiolan, Basilikako aldare nagusian zegoen zilarrezko Inazio donearen irudia herriratzeko asmoz. Ordena erreale baten arabera, herriak utzi zion irudia Jesusen Lagundiari.



Imanol Elias Odriozola

Garai bateko Azpeitia ▶ Joxe Mari Seguroiak kontatua

baserriko LANAK

Baserritarrentzat traturako joerak asko aldatu direla dio Joxe Mari Seguroiak. Errasti Baso baserrian jaio zen eta tratatu asko egindakoa da

▶ Testua: Ane Aranburu

Aratz-erreak Errasti Baso baserrian jaio zen Joxe Mari Seguroia eta bertan egin du bere bizitza osoa, Kandelari Kerejeta amaztearekin batera. Gogoetan hasi eta gerraosteko urteak aipatu ditu.

▶ **ESTRAPERLOA.** "Gari soro ugari genuen. Hala ere, gerraoste hartan, garia [Espainiako] Estatuari entregatu behar izaten genion", dio Seguroiak. Espainiak ordainetan ogi beltz "kaskarra" ematen ziela azaldu du Seguroiak. "Ezkutuan jaisten genuen garia Nuarbe eta inguruetako errota txikieta. Errota horietan

ehotzen genuen garia eta irinarekin itzultzen ginen etxera, gero etxean bertan ogia egiteko".

▶ **BASERRIA ETA DUKEA.** Bere bizitza osoa Errasti Baso baserrian igaro badu ere, baserriaren jabea, hasiera batean, Granadako Dukea zela jakinarazi du. "Aratz-erreak eta inguruetako

“Irina lortzeko ezkutuan eta gaez jaisten genuen garia Nuarbe eta inguruetako errota txikieta”

JOXE MARI SEGUROLA ▶ baserritarra



Errasti Baso baserria. J.M. SEGUROLA


baserri ugariaren jabea zen Dukea eta egindako laborearen zati bat Dukeari entregatu behar izaten genion", dio. "Gero, baserriaren errenta diruaren truke egiten hasi ginen". Ondoren, Dukeak baserriak salgai jarri zituen eta orduan lortu zuen Seguroiaren familiak Errasti Basoren jabetza osoa. "Handik aurrera, norbere etxe eta lurren jabe, ilusio handiz egin genuen lana eta bizimodua asko hobetu zitzaigun".

▶ **FERIA.** Gari soroz gain, ganadua ere bazeukan Errasti Basoko familiak eta maiz jaisten ziren Azpeitiko feriarak, tratura. "Lehen, ganadu asko egon ohi zen Azpeitiko ferian. Geu ere jaitsi izan ginen 20 bat arkume hartuta. Orain Azkargorta tindategia dagoen inguruari, 'txerri plaza' deitzen genion eta hor ere sarri egoten ginen txerrikumeekin".

Harrezkero garaiak asko aldatu direla dio Joxe Mari Seguroiak. "Gaur egun traturako oso aukera murrizak dauzka baserritarrak", esaten du. ◀



Hitz gezidunak ▶


	* IZENA		Eraikin mota	Sortaldera	Aharian eme	India
	Kulunkatzen dena		Azal	Sodioa	Gizon izena	
	Irristatu		Ipar EH-n, hiru			
Zutarria	Herri handi			Erne!		Hegazti bidaiariak
Zutiarazten duena	Arraun euskarria			Gaiztoa		
						Urania
						Beldurrak
Makina-erreminta				Libiako l. erregea		
Baleuka				Musika nota		
			7 egun			Errep., txori mota
			Ukatzeko			Listua
* DEITURA						
Gipuzkoan, dut						
		Azkena eta lehena		Zelaiak		
		Röntgen		Oxigenoa		
Suitzako ibaia			Gauerokoa		Nor atzikia	●

* Azpeitiar medikua

Hitz gurutzatua ▶

EZKER ESKUIN. 1. Fruitu mota. 2. Su. Euskal sindikatu abertzalea. 3. Bizkaieraz, zakar, latz. Mendebaldean, zen. 4. Emeak gurasoekiko. Bostehun eta bat, zenbaki erromatarren arabera. 5. Ur kirol mota. Jakinarazpen. 6. Ez eme. Barazki mota. 7. Norat atzikia. Ez hotza, ez epela. 8. Suari dariona. Jatorria adierazteko atzikia. 9. Adi ezan!


GOITIK BEHERA. 1. Itsasbazterreko amildegi. 2. Kalteak, galdutakoak. 3. Zuhaitz mota. Infusio mota. 4. Zeharo, arras. Mina adierazteko interjekzioa, otx! 5. Kontsonantea. Antzina-ko Egiptoko jainkoa. Siberiako ibaia. Kontsonantea. 6. Alkoholen bukaera. Eguzkiaren inguruan elipse formako orbita oso luzeetan bira ematen duen argizagia. 7. Joan den urtea. Ibar. 8. Hurbiltzen ari da. 9. Enea.



Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK

K	A	●	V	O	●	R	V	A	●
K	A	U	L	A	●	Z	●	T	D
A	U	A	R	I	Z	E	R	E	●
O	●	Z	E	S	●	A	L	U	B
S	●	R	I	D	●	U	N	O	T
U	●	E	Z	L	●	A	R	I	Z
●	●	I	●	R	●	I	H	●	Z
U	●	D	A	I	●	N	B	L	●
I	●	A	R	K	●	N	U	L	K
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●



HITZ GURUTZATUA

				N	V	A			
				Z	A	I			
				A	Z	A			
				R	T	A			
				K	E	A			
				R	A	T			
				O	B	E			
				A	R	O			
				E	T	O			
				A	M	A			
				R	L	A			
				O	H	A			
				D	I	A			
				●	●	●			
				K	B	A			
				Z	A	N			
				L	A	K			
				A	R	L			
				B	L	A			
				●	●	●			
				L	O	I			

UZTARRIAREN OTSAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA



Izaro Etxeberria Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 81. irabazlea. Nerea dendako oparia irabazi du sari bezala. Argazkian, Izaro Etxeberria –eskubian– eta Rosario Ibaieta Nereaneko dendaria.

Zer dago gaizki? ▶



ERANTZUTEKO EPEA ▶

Martxoak 22 (osteguna)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶


ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Urkeko argazki-handitze txartela

PARTE HARTZEKO BALDINTZA ▶

Uztarran bazkide izan behar da



Jose de Arletxe, 10
Tel. 943 81 52 44

IRAKASLE TITULUDUNAK ETA ESPERIENZIADUNAK
CAMBRIDGE, HEQ, TOEFEL
HAURRENTZAT KLASE BEREZIAK EGUARDIAN
ESKOLAKO INGELESERAKO LAGUNTZA
ENPRESETARAKO INGELESA
HELDUENTZAT MAILA GUZTIAK
ERRELEBOETAKO LANGILEEI PREZIO BEREZIA

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelesa ikāsteko bide zuzena
Foru Ibilbidea, 7-1 ezk. Tel.: 943 81 65 03

Zaindu ▶

Itsas aingira

Julian
Bereziartua

Aingira itxurako arraina, teleosteo apodoen taldekoa da. Misteriorik gabeko aingira dela esan genezake, bizitza osoa itsasoan igarotzen baitu, ibaietan sartu gabe.

Nahiz eta liburu batzuetan bere tamaina handia azpimarratu, nik ezagutu ditudan artean behintzat, ez zegoen hamar kilo baino gehiago pisatzen zuenik, eta luzeran ez ziren iristen metro eta erdira.

Helduak itsasertzeko koba txikitian ezkututzen dira. Aingira jatuna eta gauzalea da eta, gaurko gazteek egiten duten bezala, goizaldera itzultzen da etxera. Auzotarrak dituen olagarroa eta muskuiluak ditu elikagai nagusi.

Mediterraneo itsasertzeko herrietako sukaldaritzan garrantzi handia du arrain horrek, baina Kantauri itsasaldean ez du ospe handirik.

Arrain urdina da eta jangarri duen %5 koipe osasuntsua da. Arrandegian erostean aurrekoaldea eskatzea komeni da, hezur gutxiago duelako.

Haragi gogor samarra da jateko, baina mineralen aberastasuna nabarmena da. Bitamina eta azukre gutxi ditu; legatzak duen antzeko proteina protzentaia baitu. Nire lagun Jose Castillo sukaldariaren iritziz, arrain hau presatzeke era gustagarrienak errixa era edo ilar freskoekin dira.

MARISA FERNANDEZ ▶

garbiketa produktuen saltzailea

Garbitzea ala gutxi zikitzea, zer da hobe?

Gutxi zikitzea.

Ba al dago joaten ez den mantzarik?

Gure produktuekin ez.

Produktu naturalak edo aurrefabrikatuak?

Naturalak. Beti begiraten diogu horri.

Trikimailu on bat?

Almendren olioia azaleko urradurentzat.

Saihestu beharreko ohitura bat?

Garbitzeko unean postura desegokiak hartzea.

Edertzeko produktuak, beharrezkoak ala osagarriak dira?

Azalaren hidratazioa minimo bat da, esaterako.

Higiene pertsonalaren urrezko araua zein da?

Maiztasuna.

Xaboa, pastilla ala likidoa?

Likidoa.

▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia



Abizena ▶

Usabiaga

Armarria.

Hiru hegazti ageri dira armarrian. Kolore urdin iluna daukate eta triangelu forman daude kokatuta, goitik behera. Beste aldaera batean, bi basurde ageri dira, bata bestearen gainean. Azkenik, zilar kolorez tindatutako ozelote bat ageri den armarria ere badu abizenak.



Banaketa semantikoa.

▶ Usabiaga abizenaren aldaera da. Uso (txoria) eta obi (sakonune) hitzek osatzen dute Usabiaga.

Esanahia.

Usoak egoten diren sakonunea edo herri-lurzoro esanahia du.

Abizenaren kokapena.

▶ Itxaso.
▶ Uruguai.

Abizenaren hedapena.

▶ Azpeitia; Altuna etxeko jauna (1570).
▶ Gabiria (1649).
▶ Itxaso (1705).
▶ Ordizia (1796).
▶ Irun (1832).

Esandakoa ▶

“Denboraldiko egutegian Euskal Herriko lasterketek dute lehentasuna nire kasuan”

ANDER GARMENDIA ▶

Bidelan Kirolgiko txirindularia

“Herriko beste musika taldeekin inauterietako CDaren proiektuan parte hartzea garrantzitsua izan da”

GLORIA LARRAMENDI ▶

Antxieta abesbatzako zuzendaria

Zenbat ▶

154

ETXEBIZITZA.

Etxebeltz-lzarrako babes ofizialeko 154 etxebizitzaren zozketan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago.

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

Gertuko pasadizoa ▶

bi herritar hil zituzten SEGADA

‘113 Pasaia sarraskiaren kronika’ liburutik hartua ▶ 2003. urtea ▶ Egilea: Pasaia Sarraskia Argitu taldea



KAPITULUA ▶ Zulo beltzik ez gure oroimenean! (5. orrialdea)

Liburuan sakonago irakurtzeko aukera izango duzue, baina hau da, laburtuz, Pasaian gertatu zena: 1984ko martxoaren 22an Komando Autonomo Antikapitalistetako talde bat itsasoz zetorren Iparraldetik Hegoaldera. Iluntzeko hamar eta erdietan zuten zita. Ez zekitena zen Rosa, hitzordua egin zien neska, poliziak illegalki bahituta zeukala, eta pistola buruan jarri ziotela hitzordu hura egin zezan. Beraz, poliziazain zegoen Pasaian. Zodiaca iritsi bezain pronto tiroka hartu zituen poliziak, fokoak piztuz eta zientoka tiro jaurtiz.

Bost lagun zetozen txalupan. Bi hasieran hil

zituzten. Hiru bizirik atera zituzten lehorrera. Han, besoak buru gainean zeuzkatela, bi fusilatu egin zituzten, eta bakarra utzi zuten bizirik, Joseba Merino. Bertsio ofiziala izan zen tiroketa bat izan zela, komandokoak hasi zirela tiroka eta poliziak erantzun egin zela. Komandokoek armak poltsan zeuzkatzen. Ez zuten tiro bakar bat ere bota.

Gertatu zenean, Pasaia enboskada egunkari, irrati eta telebista guztietan agertu zen. Hasiera-hasieratik hedatu zen komunikabideetan bertsio ofiziala ez sinesteko jarrera. Egunkari batzuek fusilamenduak izan zirela jaso zuten, eta Eusko Jaurlaritzak ikerketa talde bat antolatu zuen, benetan zer gertatu

zen jakiteko, gero emaitzarik ezagutu ez bagenuen ere. Donostiako Gotzainak ere kasua argitzeko eskatu zuen publikoki. Hilotzak herrira iritsi zirenean, belaunaldi oso bat markatuta geratu zen. Inoiz ahazten ez diren une horietako bat izan zen gure bizitzan.

Denbora asko pasa da, eta Azpeitian urtero antolatzen den omenaldiari esker ikusi dugu hainbat gazte Pasaian zer gertatu zen jakin nahian, honi edo hari galdezka. Zerbait entzuna zuten, baina informazio gehiago nahi zuten. Kezka horri erantzutera dator, neurri batean, liburu hau.

Azpeitiaren historian Pasaia hilketa une klabe bat dela uste dugu; eta Euskal Herriaren historian ere une garrantzitsu bat, oso garrantzitsua. Horregatik ezin dugu utzi gertaera hori zulo beltz batean galtzen.

Oroitzea merezi duten eta merezi ez duten gauzen artean aukeratzea gure borroka pertsonala da, inoiz boterearen esku utzi behar ez duguna, badakigu-eta botereak zer oroitaraziko digun: bertsolariak, kirolariak, gabon kantak, alkateen izenak eta poliziaren hazaina handiak.

Guk Pasaia sarraskia oroitarazi nahi dugu, zerbait gehiago jakin nahi duenak dokumentazioa eskura eduki dezan. ◀



PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com

Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com



ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



Otamendi
Pitxi Donde

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



INFORMATIKA ZERBITZUAK



ORDENAGAILUEN KONPONKETA ETA SALMENTA

- PORTATILAK
- OSAGARRIAK
- BIDEO ZAINZTA
- WIFI SAREAK
- KOMERTZIOTARAKO TPV-AK
- TABERNENTZAKO MUSIKA SISTEMAK...



JANDONIANIZ PLAZA 5 AZKOITIA Tel.:943026428 Fax.:943026329
email:etk@etkinformatika.com

www.etkinformatika.com

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaile)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)
EA	81 00 11
PSE-EE	15 72 00
PP	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58
Kontseilua	943 59 12 00

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gaez ▶ martxo

5-10-11-16

Aranburu (Azpeitia).	943 81 13 50
----------------------	--------------

6-15-30

Jacome (Azpeitia).	943 08 02 58
--------------------	--------------

7- 14-26-31

Garcia (Azpeitia).	943 81 12 74
--------------------	--------------

8- 12-17-18-27

Beristain (Azpeitia).	943 81 19 49
-----------------------	--------------

9-13-28

Alberdi (Azpeitia).	943 81 59 74
---------------------	--------------

1-20-21

Jaen (Azkoitia).	943 85 06 60
------------------	--------------

2-22

Azpiazu (Azkoitia).	943 85 29 89
---------------------	--------------



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

IZENPEREN HERRITARRAREN TXARTELA.

Zenbat alditan joan zara bulego batetik bestera agiriari zuzentzeko? Orain, Izenperen herritarraren txartelari esker, Osakidetza edo Gizarte Segurantzza erakundeekin etxetik bertatik jar zaitezke harremanetan. Informazio gehiago, www.izenpe.com edo Kzgunean.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarrria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

RAFAEL OLAIZOLA ▶ toreatzaile afizionatu ohia

“25 urte dira toreatzaile mototsa moztu nuela”

▶ Testua: Mainer Zendoia ▶ Argazkiak: Rafael Olaizolak utzita



Fernando Olaizola *Niño de Arrabal* aski ezaguna da herrian zezenketarekiko daukan zaletasunagatik, besteak beste. Aurten 25 urte beteko dira toreatzaile mototsa moztu zuenetik.

Nondik datorkizu zezenarekiko zaletasuna?

Gure aita Azpeitiko zezen-plazako atezaina zen eta betidanik ikusi ditut zezenak gertutik. Neu Errebalekoa nintzenez, bertako Peña Taurina Andaluz taldekoek bataiatu ninduten *Niño de Arrabal* izenarekin.

Noiz jarri zinen zezenaren aurrean aurreneko aldiz?

Hamahiru urterekin toreatu nuen lehen aldiz. 25 urte dira toreatzaile mototsa moztu nuela.

Zure faenarik kuttunena zein izan da?

Profesionalekin aritu nintzenekoa, Enrique Vera Madrilgo nobilleroa eta Etxeberria mexikarrarekin toreatu bainuen.

Pentsatu al zenuen behin ere profesioletara salto egitea?

Oso zaila da hori! Kuadrila osatu behar da eta, gainera, gure aitak negozioa zeukan martxan.

Zure paserik onenari zer pasodoble jarriko zenioke?

Ayamonte zoragarria iruditzen zait. Zestean jotzen duten *Amparito Roca* ere gustukoa dut.

Zer plazatan toreatzea gustuko litzaizuke?

Azpeitian, azpeitiarra naiz-eta. Hemendik irtenda, plazarik ederrera eta serioena Bilbokoa da, Ventas-eta baino ederragoa.

Toreatzailerik gustukoena zein duzu?

Antonio Ordoñez, Paco Camino eta Jose Mari Manzanares izan dira onenak, nire iritziz.

Zezenketa: kultura; tortura?

Tortura dela uste dutenen pentsamoldea errespetatzen dut, baina ez naiz hor sartzen. ◀

TXIKITAKO AMETSA.

Rafael Olaizolak txikitatik bizi izan du zezen giroa etxean. Haren aitak zezen-plazan orduak igarotzen zituen eta, ondorioz, oroitzapen asko ditu zezenketei lotuta. “Niri umetatik datorkit zaletasuna eta zezenen inguruko zerbaitetara dedikatu nahi nuen”, dio.



Ainhoa Salegi, Uztarriaren egoitzan.

teknologia versus EUSKARA

Ainhoa Salegi azpeitiarrak Elekan egiten du lan, teknologia berriak eta euskara uztartzen dituen enpresan

► Testuak eta argazkia: Maider Zendoia

Teknologia berriek gaurko gizarteko alor guztietan duten garrantzia begi-bistakoa da. Beraz, errealitate horri atzea ematerik ez dago. Azken urteotan alor horretan izandako iraultzak errutina ugari aldatu du; eta, gainera, baliabide askoko aukera sorta zabaldu dio erabiltzaileari. Euskararen kasuan, tren hori ez galtzea erabaki dute zenbait eragilek. Uztarriak ingeniari-tza linguistikoan diharduen enpresa batean lan egiten duen azpeitiarrarekin solas egin du: Ainhoa Selgirekin.

Elekan egiten du lan hark; hau da, EHUko Informatika fakultateko IXA ikerketa taldearen eta Elhuyar Fundazioaren lankidetzatik sortutako enpresan. "Elhuyarrek enpresa alorreko jakinduria eskaintzea erabaki zuen eta IXAk, berriz, jakinduria teknologikoa eranstea", dio Ainhoa Salegik enpresaren sorreraz.

Eleka 2002an sortu zen, ingeniari-tza linguistikoan aritzeko helburuarekin. Baina zer da ingeniari-tza linguistikoa? Salegik adierazitakoaren arabera, "pertsonek eta makinaren arteko komunikazioa errazten duen sistema da; hizkuntzalaritza eta informatika uztartzen dituen, alegia".

Euren jardueraren definizioa proiektu konkretuetan zehazteko unean, ondorengoak aipatzen ditu Salegik: zuzentzaileak, bilatzaileak, itzulpen memoriak, web mining-ak, corpusen etiketatzea, formatu digitaleko hiztegiak, itzulpen automatikoa eta hizketa-teknologia.

► TEKNOLOGIETAN SARTU.

Salegik argi dauka euskarak beste hizkuntzak hainbateko garrantzia izan nahi badu, teknologietan ere ezin duela atzera geratu. "Ingelesezt gauza ugari dago merkatuan, baina euskaraz ez

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)**Euskararen jatorria, existentzia...**

Hona hemen liburuko 36. kapituluak pusketak (neuk itzulia):

Xabierko Frantzisko 1506an jaio zen, Europako estatu aske eta subiranoan [Nafarroa]. Bere familia Nafarroaren independentzia mantentzeko espainiarren kontra desesperatuta nola borrokatu zen ikusi zuen haurtzaroan. Sei urte zeukan Nafarroaren konkista ikusi zuenean. Bere familiak hurrengo urteetan altxamenduak bizi izan zituen,

zigorrek, jazarpenak eta umiliazioak.

Haren biografoek ez dute zailantzarik izan bere ama hizkuntzaz: XVI. mendean ia Nafarroa osoa euskalduna zen; Xabierko Frantziskoren sendia euskalduna zen. 1544an Xabier kexu zen indigenekin zeukan arazoez, ez ziotela ulertzen zioen, "ezta nik haiei ere, haien hizkuntza malabar naturala izateagatik eta nirea bizkaitarra".

1552an hil zen, eta haren biografo Schurhammer-ek ondorioztatu zuen Xabierko Frantzisko azkenetan zenean, honek euskaraz hitz egin zuela, ama hizkuntzan.

Nafarrik unibertsalenak, gure nortasunaren sinboloak, ezin zuen euskalduna izan hizkuntzari dagokionez. Historiaren galtzerdiari buelta eman behar zitzaion. Hala, kezkatzen dituen gauza bakarra ezbaian jartzen hasten dira: santuaren hizkuntza bizkaitarra.

Baten batek honetan errepara-

tu zuen, bat-batean: Xabierrek aipatzen zuen "bizkaitar" hizkuntza, gaizki hitz egindako gaztelera izan zitekeela. Haien ustez, "bizkaitar erara" hitz egitea eta idaztea zatekeen bizkaitarrek gaztelerraz aritzean egiten zutena gramatikako arauak falta zitzaizkienean. Santuak hitz egin zezakeena, "euskal sintaxia zeukan gaztelera dibertigarria" zen.

Bistan da: euskararen existentzia ukatzen mendeetan dabilta.

Niri, berriz, azpeitiar gazte hark 1991 aldera esan zidan "euskara latinaren dialektoa" dela. Eta potoz gora geratu zen.

▶ **Enekoitz Esnaola**

"Azpeitin"?

niak. Azpeitiako Landetan'. Gaizki deklinatuta dago! 'Azpeitiko' da!". Baina gero hori zuzendu zutela ere esan genuen, Euskadi Irratian enpresa horren iragarki berrituan "Azpeitiko" esaten dutelako, ez "Azpeitiako".

Bada, ordea, Euskadi Irratiko iragarkietan 'Azpeitia' gaizki deklinatzen duen herriko beste enpresarik: "Azpeitin Abea Altzariak" esaten dute, "Azpeitian" esan beharrean. Ea hori ere zuzentzen duten. Behintzat, iragarki bertan "Azpeitiko" esaten dute.

▶ **Iñaki Odriozola**

Aldea

Euskadi Irratian goizean politikariaren tertulia entzun nuen lehengoan: Onintza Lasa, Fernando Barrena, Markel Olano eta Ramon Etxezarreta zeuden. Euskararen egokitasun eta freskototasun aldetik, Ramon kanpeon. Aldea besteiei.

▶ **Anam**

dago teknologia hori garatuta; euskara teknologia berrietara eramaten ez badugu, beste hizkuntzen atzean geratuko gara".

Ondorioz, euskarak badauka etorkizuna teknologia berrietan. "Gauza asko dago egiteko eta egiten diren gauzak oso beharrezkoak eta erabilgarriak dira. Beste hizkuntzen atzetik ibili beharrean, haien pare garatu behar dugu", dio Salegik.

Ildo horretan, azkeneko urteotan gertatutako iraultzak teknologia egunerokotasunera ekarri duela pentsatzen du. Hala ere, oraindik behar hori sumatzen ez duten alorrak badaudela dio. Haren ustez, "enpresa industrietarako sarbidea oso zaila da, nahiz eta itzultzaile automatikoekin itzaropena izan. Enpresek gero eta gehiago irteten dute kanpora eta, ondorioz, pixkana-

Euskara teknologia berrietara eramaten ez badugu, beste hizkuntzen atzean geratuko gara"

Euskararekin konpromisoa izanda, denera jartzen zara"

AINHOA SALEGI ▶

Eleka enpresako kidea

Lagungarriak**ZUZENTZAILEAK** ▶**Xuxen.**

▶ www.euskara.euskadi.net

Xuxen web.

▶ www.xuxen.com

ITZULPEN AUTOMATIKOAK ▶ **Opentrad.**

▶ www.opentrad.org

ka-pixkanaka ari dira jabetzen behar bat badagoela". Kalitateko ziurtagiriek ere gauza bera gertatu zela uste du; "hasieran jendeari agiri pilaketa iruditzen zitzaion, baina orain enpresa askorentzat beharrezkoa da kalitateko prozesuak ezartzea".

Etorkizunari begira, itzulpengintza automatikoa asko garatuko dela uste du Ainhoa Salegik. Izan ere, orain urte batzuk inork gutxik zekien zer ziren zuzentzaileak, bilatzaileak edota hiztegi digitalak. Gaur egun, aldiz, ia inork ez du testu bat bukatutzat ematen arestian aipatutako hiru laguntzaileen babesik gabe.

Itzulpengintza automatikoari esker, testuak automatikoki beste hizkuntzetara itzuli ahal izango dira. Hala ere, Elekako kideak aipatutakoaren arabera, "oraingoz, euskara itzultzeko kalitatea ez da guztiz ona, %72ko parekotasuna

baitu. Hizkuntza latinoek errazagoa daukate, estruktura aldetik hurbiltasun handiagoa duten hizkuntzak direlako".

▶ **KONPROMISOA.** Lau lagunek sortu zuten Eleka 2002an baina, hainbat aldaketen ondoren, gaur egun zazpi pertsonen dihardute lanean. Ainhoa Salegik administrazio eta finantza arloan egiten du lan, "baina euskararekin konpromiso irmoarekin".

Elekako azpeitiar kideak unibertsitateko ikasketak erdaraz egin zituen eta, enpresa horretan lanean hasi zenean, kontabilitate eta administrazio lanak euskaraz egiten hasi zen. "Hasiera batean, gauza guztietan bezala, kostatu egin zitzaidan, baina gero aise jarri nintzen".

Haren ustez, "euskararekin konpromisoa izanez gero, denera jartzen zara". ◀

Euskararen gorabeherak ▶



GORA. Kendu oztupoak euskararen bidetik

Ate aurreko trabak kentzeko eskatzeaz gain, euskararen erabilera ez oztopatzea lortu du oharraren egileak. Libre nahi ditu garaje aurrea eta euskararen erabilera.



BEHERA. Kontuz, euskara baztertuta!

Erretzea eta sua egitea arriskutsuak diren gune honetan, badirudi euskaraz egitea ere ez dela gomendagarria. Sua eta euskara, biak itzali nahi izan ditu egileak.



Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“ Idazkiak onartuak ez badira, zure kexa adierazi idazkia zuzendu duzun lekuan, zure inguruan eta euskararen defentsan diharduten elkarteetan ”

Euskal Herrian Euskaraz 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrarian dago edonoren eskura

Albisteak ▶

‘Egunkaria’: lau urtera auzipetuta oraindik

Otsailaren 20an lau urte bete ziren *Euskaldunon Egunkaria* indarrez itxi zutenetik. Espainiako Fiskaltzak orain dio ez dagoela delitu frogarik. Hala ere, epaiketa egiteko arriskua dago. Auzipetuen artean, bi azpeitiar daude: Eneko Etxeberria abokatua eta Mikel Azkune komertziala. ◀


Korrika15en kanta uztarria.com-en entzungai

Erraz gogoratzeko erritmoekin dator aurtien Korrikaren abestia, Niko Etxarten eta Hapa-Hapa taldeko musikariekin. Hain zuzen, kanta entzuteko aukera dago uztarria.com/euskara helbidean.

Abestiaren hitzak eta informazio gehiago, www.korrika.org webgunean. ◀

Lasao

• egurrezko altzaria




% 100 egur trinkoa

www.lasao.com

Lasao Industrialdea
Tel. 943 151 182





Santi Lazkano Kirolak

udaberria - uda

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

AURREMATRIKULAZIOA

otsailaren 26tik
martxoaren 9ra

Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
DBH

IRAKASKUNTZA
2 URTETIK 20 URTERA

kalitatea zure zerbitzura



HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA



Euskal Herria, 50
Tel.: 943 81 26 97
Faxa: 943 15 08 30



012320aa@hezkuntza.net

ZAINTZA edo RETENA
Goiz eta eguerdian

JANGELAK:
LHkoentzat Perdillegin
HHkoentzat Euskalerrian (logela eta guzti)

GARRAIOA
Autobus bakoitza bere zaintzailearekin



DBH, BATXILERGOAK ETA HEZIKETA ZIKLOAK



Perdillegi, 3
Tel.: 943 15 02 28
Faxa: 943 81 66 20
azpeitia@urola.org

DBH
BATXILERGOAK
- Natur eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialia
- Mekanizazioa
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Administrazio eta finantzak
- Mekanizazio bidezko produkzioa



*DBHOn